



Hollande Frantziako presidente

Aldaketarako esperantzan

Europar eta
Euskal Herrian

- **Internet** Konpainia erraldoiek zutaz dakitenaren %70 ezkutuan darabilte
- **Carlos María Romeo** Zuzenbidearen eta ikerketa genetikoaren arteko talkaz
- **Ixabel Aleman**, emagina «Mina erditzearen parte bat da, bertzerik ez»
- **Durangoko hiltegia** Itxierak milaka abeltzainen biziraupena jarri du kolokan
- **Net Hurbil** Arrantza jasangarriaren eztabaida pil-pilean dago Erresuma Batuan

PLUJA SECA

euri lehorra



maiatzaren 18an estreinaldia **euskaraz!**
ARGIAko **multimedia** kanalean



Euri Lehorra

dokumentalak bitartekari
batzuek Hegoafrika eta
Irlanda Iparraldeko bake
prozesutan egindako lana
aurkezten digu.

Lan interesgarria da, pertsona hauek berak Euskal Herriko egoeraz duten iritzia azaltzen baitigute.

TV3 telebista kataluniarrak eta Baleukok egindako dokumentala da, orain arte euskaraz izan ez duguna, eta **ARGIA**k euskaratua.



baluko
komunikazioa



Gipuzkoako Foru Aldundia

Dokumentalean parte hartu dute:

JohnHume | WilliamdeKlerk | AlecReid | RoelfMeyer | BrianCurrin
HaroldGood | JonathanPowell | AlexMaskey | PeterRobinson | PierreHazan
DenisHaughey | CharlesVillavicencio | BrandonHamber | MohammedBaba
AubreyLekwane | PaulaLeyden | JuanJoseIbarretxe | RufiEtxeberria
LeopoldoBarreda | JoséAntonioPastor | JoneGoirizelaia | PáulRios



Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produksioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



Deabruaren abokatua

- **Juan Carlos Etxeberria:** «ETArri kantxa baino kontrakantxa ematen saiatu naiz». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Jabetza eskubideak Interneten.** Datu pertsonalak, besteren negozio iturri. JON TORNER / 5

Pertsonaia

- **Ixabel Aleman:** «Erditzea da bizitzan merezi duen min bakarra». REYES ILINTXETA / 10

Gaiak

- **Carlos Maria Romeo:** «Norbanakoen informazio genetikoak berebiziko babesa behar du». UNAI BREA / 16

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENTETA / 19
- **Kapital mentala.** CARMEN VALOIS / 20
- **Txandan** .eus ikurrina. JOSU AMEZAGA / 20
- **Ikusezinak.** KARLOS GORRINDO ETXEANDIA / 21
- **Hiruko txikian** Bilgune nazionalak. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Bertso berriak** Beharrei jarriak. JULIO SOTO / 22

Erdiko kaiera

- **Literatura.** Argitaletxe berria, edo! IRATXE ESNAOLA / 23
- **Manillares Iturriaga.** Rock talde jendetsuena. IRATI SARASUA ARABAOLAZA / 26
- **Liburuak** IGOR ESTANKONA / 28
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 29
- **Ezpalak** JON TORNER / 30
- **Abarrak** GORKA BEREZIARTUA / 31
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 34
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 35
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

Termometroa

- **Mikel Ansotegi:** «Durangoko hiltegia ixtea kolpe handia izan da Bizkaiko lehen sektorearentzat». UNAI BREA / 37
- **Frantziako presidentetzarako bozak.** Hollande presidente: itxaropenak izua garaitu du. MIKEL ASURMENDI / 40
- **Konposta auzolanean.** 65 familia lorategi publikoan hondakinak ongari bihurtzen. IRATI SARASUA ARABAOLAZA / 42
- **Arturo Campion.** Euskaltegi denentzat baldintza berak aldarri. IURE EIZAGIRRE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46
- **Maltzagatik** XABIER LETONA / 47
- **Net Hurbil** Arrantzalea: harrapari zena gaur itsasoaren zaintzaile. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Bibliografia.** ITXARO BORDA / 50



“ETArri ‘kantxa’ baino ‘kontrakantxa’ ematen saiatu naiz”

Juan Carlos Etxeberria

Degradatua izanagatik ere,
ETBko albistegietako aurpegirik ezagunenetakoa oraindik.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Teleberri aurkeztetik oinezko erredaktore izatera. Zein izan zen delitua?

Erantzunik gabeko galdera batzuk izan nituen. Zalantza gehiegi egunero Teleberriren aurpegia izateko.

Kriptiko xamar geratu zaizu.

Aurkezle postua neure borondatez utzi eta handik gutxira kategoria handiko bi editoreren kargugabetzea gertatu zen. Orduan jakin nuen erabaki zuzena hartu nuela. Publikoki ez, baina barruan esan nituen esan beharrekoak.

Telebistatik politikarako saltoa ez dela hain handia, alegia, Uxue Barkos eta Aintzane Ezenarrok erakusten dutenez.

Eta pixka bat zabaldua, Martin Garitano edota Luis Herrero ahantzi gabe. Baina ez gaizki ulertu, oso zilegi iruditzen zait kazetaritatzat politikara pasatzea.

Ez da, momentuz, zeure kasua.

Aipatu ditugun horietako batzuei esana diet, errespetu osoz, ispiluaren beste aldera pasa direla. Errealitatea desitxuratzen bada kazetaria baino lotsagabeagorik: politikaria. Eta niretzat kazetaritza bokazioa da.

Metro Bilbao Julio Ibarrentzat eta BBK Joseba Iriondorentzat bezala?

ETBk bi profesional bikain galdu zituen horiek alde egin zutenean. Nomina polita akaso, baina ez dakit komunikazio lan horretan moldatuko nintzatekeen.

Arrazoi duzu, ETArek bonbaren bat gorabehera, lasaia duzue jarduna ETBn.

Horrelakoak –eta okerragoak– betiko bukatu direla jakiteak ematen didan poza adierazten asmatuko banu...

Baina zuek ez al zenioten ETArri soka ematen?

Bola ematen genion guk ETArri. Hori esan zuen behintzat hiru hilabete geroago egun hartan bostekoa ematera etorri zen batek. Eta hori ere ez zait ahaztuko. ETArri *kantxa* baino *kontrakantxa* ematen saiatu naiz ni.

Baina kazetaritzaren funtsa da: zuk edozer esan, jendeak irentsi egiten du eta.

Egin galdera Acebes, Michavila eta Aznarri 2004ko hauteskundeetan harira. Jendeak nahiko itsututa ikusten du telebista, baina muga bat dago. Informazio egiazkoa eta zuzena eman behar da, konfiantza galtzea irabaztea baino askoz errazagoa delako.

Konfiantza irabaztea edo galtzea, zer da Lady Diren hileta edo Urdangarinen ezkontza zuzenean ematea?

E, Lady Direna erretransmisio bikaina izan zen. Eta Urdangarinena ere bai; gauzak daudden bezala baietz kristoren audientzia eman!

Ez da izango dena audientzia ETBn?

Ez, noski. Zorionez, gaizki egin dako oinarritzko gauza batzuk azkeneko hilabeteetan zuzentzeko bidean daudela ematen du. Bada garaia. ■



• ASTERO GAIA •

Jabetza eskubideak Interneten

Datu pertsonalak, besteren negozio iturri

Guri buruzko informazio mordoa igotzen dugu egunero Internetera, eta sarri ez gara kontziente sareratzen dugun hori beste batzuen esku geratzen dela. Gainera, uste baino baliotsuago bilakatzen dira datu horiek, bereziki publizitatearen pastela irentsi nahi dutenentzat.

JON TORNER



RADIOFREETHINKER

● Jabetza eskubideak Interneten

“ZURE PRIBATUTASUNAREN zati bati uko egin ezean, aurrerapen teknologiko berrienak erabiltzerik ez duzu izango”, erantzun ohi du Google konpainiako presidente Eric Smith-ek, enpresaren jardunak erabiltzaileen eskubideak errespetatzen ote dituen galdetzen diotenean. Baina egia al da hori? Gure intimitateari uko egin behar al diogu teknologiaren industriak garatutako produktuez gozatu ahal izateko? “Ezetz uste dut. Pribatutasuna oinarritzko eskubidea da eta ez dut zertan horri uko egin produktu teknologiko bat eskuratu ahal izateko”, dio Alejandro Suarez *Desnudando a Google* (Deusto, 2012) liburuaren egileak.

Intimidade eta pribatutasun eskubideez hitz egitean, ezinbestean heldu behar zaio jabetza eskubideari. Apirilaren 24an Google Drive disko gogor birtuala aurkeztu zuen Google-ek, doako 5 GB lainora –Internetera– nahi adina fitxategi igo eta partekatzeko. Dropbox-en edota Microsoften Skydrive moduko zerbitzuen lehiakidea da. Biharamunean galdera bera egin zuen kazetari eta blogari askok: nor da lainoan pilatutako edukien jabea?

Hasiera batean, han jarri dituen erabiltzaileak mantentzen ditu artxiboen gaineko eskubideak, baina batzuetan –“produktuaren funtzionamendua hobetzeko”– enpresak bai-



Pasa den hilean Facebook-ek Instagram argazkien sare soziala erosi zuen, 1.000 milioi dolar ordainduta. Ia 500 milioi argazki sareratu dituzte bertan erabiltzaileek, eta haiekin zer gertatuko ote den beldur dira asko. Nor da orain irudien jabea? Facebook-ek ziurtatu du Instagramek zituen baldintzak errespetatuko dituela, baina honen pribatutasun politikaren atal batek zera dio: “Aldez aurreko abisurik gabeko aldaketen baitan”.

mena du zure materiala erabili, eraldatu, erreproduzitu eta zabaltzeko, edukiaren jabetza norberak mantentzen duen arren. Gure eskubideak enpresari uzteko nahikoa da zerbitzuon erabilpen-baldintzak onartzea, eta hori erregistratzean egiten dugu normalean, klik bakarrarekin, konturatu ere egin gabe gehienetan, edo axola ez zaigulako bestela. Izan ere, webgune batean izena ematean, zenbatek kontsultatzen ditugu ordu erdian irakurriko genituzkeen pribatutasun-politikak? Eta berdin mezu elektronikoekin. Administrazioa zure nagusia baldin bada –alegia, laneko kontu bat erabiltzen baduzu–, legeak baimena ematen dio zure mezuetara sarbidea izateko. Bada, berdin administrazioa doako kontu pertsonal bat baldin bada: izan Gmail, Yahoo edo Hotmail, gure mezuak eskaneatu eta metatu ditzakete, baita ezabatu ditugun horiek ere.

Erabiltzaileen datuak besteren zerbitzarietan metatzen dira, munduko edozein bazterretan, eta horrek arazo franko sor ditzake lekuan lekuko datu babeserako legeek zehaztutakoarekin. Legediak ezagutzea, zerbitzariak non dauden jakitea edota hornitzaileekin kontratu egokiak sinatzea funtsezkoa da ezuste desatsegini ez jasotzeko. Oro har, Europar Batasunak zorrotz babesten du pribatutasuna. Aldiz, AEBetan, US Patriot Act moduko legeek Gobernuari eta beste erakunde batzuei baimena ematen die konpainiek pilatutako informazioa kontrolatzeko.

Horren guztiaren aurrean, ezinbestekoa da eskuragai ditugun tresnak tentuz erabiltzea edo alternatibak bilatzea. Horietako bat Funambol izeneko plataforma da –irakurri Gorka Julioresen *Hodeietan?!* artikulua. Berria, 2012-04-26–.

Google-ek (ia) dena daki guri buruz

Martxoaren 1ean Google-ek bere 60 zerbitzuren pribatutasun politikak eta erabiltzaileen datuak bateratu zituen, internautek sareari “ahalik eta etekin handiena atera diezaioten”, webgunean azaldu zuenez. Nor da, baina, aldaketa horri zukurik gehien ateratzen diona?

Praktikan, Gmail erabili, YouTube bideoak ikusi –gogoratu enpresa hori Google-ek erosi zuela 2006an–, Google Docs-en artxiboak partekatu eta bilatzailearen bidez kontsultak egiten dituen pertsonari buruzko informazioa uztartu ahal izango du Google-ek, betiere erabiltzailea bere kontutik nabigatzen ari bada. Zertaz hitz egiten dugun, norekin, zenbatero... Datu piloa eskura dezake, “gero produktu eta zerbitzu pertsonalizatuak saltzen saiatzeko”, Alejandro Suarezek dioen moduan.

Google-ek azaldu duenez, bilaketetan emaitza are pertsonalizuagoak lortuko dira, besteak beste Google+ sare sozialeko edo Blogger-eko profiletan zehaztutako lehentasunen arabera izango direlako. Halaber, erabiltzaileak ikusiko du nola Gmail-eko sarrera-ontzian agertzen diren iragarkiek lotura duten Google Docs-en partekatzen dituen dokumentuekin edo Picasa-ko argazkiekin. “Gure produktu guztietan erabiltzaile bakar moduan tratatuko zaitugu”, dio Alma Whitten Google-eko pribatasun zuzendariak.

Ezinegon handiagoa sortzen duten adibideak ere badaude, ordea. Demagun lagun bati bidalitako mezu elektroniko batean animaliekiko interesa agertu duzula. Bada, bilatzailean “Jaguar” hitza idaztean animalari buruzko erreferentziak azalduko zaizkizu zerrendaren goialdean, eta ez autoaren ingurukoak. Ezinegon ez du adibide konkretu horrek sortzen, Google-ek zure mezu elektronikoetan esandakoa hitzez hitz prozesatzen duela jakiteak baizik. Nondik nora ibiltzen da, gainera, zure eskuetatik ihes egin duen informazio hori? Google-ek hirugarren batzuei salduko al die? Gmail-ek soilik ez, YouTube-ikusten ditugun bideoek ere informazioa eskaini dezakete gure kokagune, interes, ideologia, osasun arazo, erlijio edota sexu-orientazioari buruz, Muga Elektronikoak Fundazioak (EFF) salatu duen moduan.

Enpresa estatubatuarrak ez duela deus oparitzen dio *Desnudando a Google* liburuaren egileak: “Google-ek zure izena ezagutzen du, adina, bizitokia eta oporretako apartamentua... eta argazkiak ditu. Amoranterik baldin badaukazu zure bikotekideari ezkuta diezaiokezu, baina Google-i ez: zure posta analizatu eta ‘astebururako ihesaldi diskretua’ dioen iragarkia pantailaratuko dizu”. Hori egiteak diru-sarrera ekarri dio, hirugarren batek –bidaia agentzia batek, esaterako– ordaindu egin baitu iragarkia jartzeagatik.

Gutaz dakitenaren %29

Europako Batasuneko edozein enpresa beharturik dago, hala eskatzen diotenean, erabiltzaileen inguruan bildutako datuak ematera. Google-en filialek ez dute daturik prozesatzen, eta betekizun horri iskin egiten diote. Aitzitik, Facebook-ek datu mordoa pilatzen du Irlandako egoitzan, eta guri buruzkoak bidaltzeko eska diezaiokegu. Prozesua, ordea, oso geldoa da. Bi zerbitzuek aukera ematen dute euren webguneetatik norberaren historiala jaisteko, baina erabiltzaile talde batek salatu duenez, guri buruz daukaten informazioaren %29 besterik ezin dezakegu ikusi tresna horiek erabilita.



Facebooken datuak prozesatzeko zentroetako bat.

Ahantzura digitala

Google-ek azpimarratu du ez dituela pribatasun printzipioak ukitu, eta ez duela erabiltzaileei buruzko informaziorik saldu edo partekatuko haren baimenik gabe, kasu berezietan –“legeak eskatzen dionean”– izan ezik. Baina Europar Batasuneko herrialde batzuek –Frantziak, esaterako– ikerketak abiatu dituzte enpresa estatubatuarrak Europako araudia betetzen ote duen argitzeko, zerbitzu desberdinetan eskuratutako informazioa uztartzerik ba al duen garbi ez dagoelako. Eric Smith Google-eko zuzendari exekutiboak dio Europako pribatasun arauak betetzen dituela:



ANDRA MARI
restaurant

Elxalde Auzoa, 22 • Galdakao, Bizkaia
Tel.: 94 456 00 05 • www.andra-mari.com



“Jendeari zer egiten ari garen argi azaldu diogu. Erabiltzaileek guk dugun informazioa kontrolatu dezakete, eta erabakitzen badute haiei buruz dakiguna ahaztu egin behar dugula, hala egingo dugu”. Sartzea erraza da; irteea, ordea, ez hainbeste, ‘ahantzura digitala’ negozio-eredu baten etsaia baita. Informazio pribatuaren kudeaketari esker etekinak ateratzen dituzten enpresen anatema bihur daiteke, erabiltzaileak modu masiboan euren datuez arduratzen hasten badira. –ikusi *Google, ez zaitzez nirekin akordatu*. Gorka Bereziartua, ARGIA, 2288. zenbakia–.

Erabiltzaile guztiek onartu beharko dituzte aldaketak, baita Android mugikorren jabeek ere, Google kontua aktibatu behar baitute ezinbestean. Pribatutasun baldintza berriei uko egiteko modu bakarra kontuak itxi eta e-posta, mapa, bideo, bilatzaile eta bestelako zerbitzu alternatiboak erabiltzea da; edo ahal den guztietan Google-en zerbitzuetara norberaren kontutik ez sartzea. Bilaketen historialak ezabatzeak ere gu kontrolatzea apur bat konplika diezaioke Google-i.

Facebook: hesitutako lorategia

Sergey Brin, Google-eko fundatzaileetako batek esan du (*The Guardian*, 2012-04-15)

sarearen askatasuna arriskuan dagoela, “gobernu batzuk herritarrak kontrolatzen saiatzen direlako batetik, entretenimenduaren industriak pirateriaren aurka egiteko sustatutako neurriengatik bestetik, eta Facebook eta Apple modukoen joko-arau murriztaileengatik hirugarrenik”.

Zergatik Facebook eta Apple? “Euren arauak berrikuntzei ateak ixten dizkiete”, adierazi du Brinek. Bere hitzetan, Facebook-eko erabiltzaileentzat zaila da sare sozialean pilatutako datuak beste zerbitzu batzuetara eramatea, bera izan denean “urte luzez” Gmail-etik kontaktuak “zurrupatzen” aritu dena. Euren plataformetako softwarea kontrolatu nahi izatea leporatu die “hesitutako lorategi” (*walled garden*) gisa definitu dituen Facebook eta Apple-i. Termino hori telekomunikazioaren eremuan erabiltzen da konpainiek edota zerbitzu hornitzaileek plataforma desberdinetako aplikazio zein edukien gain egiten duten kontrolaz hitz egiteko, erabiltzaileari sarbidea mugatu ala ixten dioten neurrian. Apple-en iPad-a eta Facebook-en posta eta txat zerbitzuak dira adibide.

“Google-ek irabazi ugari eman dizkion negozio ereduari eustea besterik ez du nahi”, adierazi du Suarezek. “Badaki Apple nagusi

Sarea, espioitza zentroen zerbitzura

Duela bi hilabete *Wired* aldizkariak albiste deigarria eraman zuen azalera: Utah-ko (AEB) desertuan Internet zelatatzeko zentro erraldoia (Utah Data Center) eraikitzen ari dira. Segurtasun Agentzia Nazionalak (NSA) kudeatuko du, eta azken hamaika urteetan mundu osoan harat-honat ibili diren datuak pilatuko dituzte bertan, AEBen segurtasuna mehatxatuko luketen elementuak identifikatzeko helburuarekin. Erreportajearen egile James Bamfordek dio babestutako informazioa bistaratu ahal izango dutela espioitza-zentro horretan, mezu elektronikoak analizatu, munduko edozein bazerretako telefono elkarrizketak grabatu, banku transakzioak aztertu, Interneteko bilaketak kontrolatu eta abar luze beldurgarria, herrialdearen segurtasunaren ize-nean. 2013ko irailean inauguratuko dute eta haren zerbitzuak Europa eta Asiako gobernuak eskuratu ahal izango dituzte.

“Terrorismoaren” aurkako gurutzadaren erdian, Britainia Handiko Gobernuak ere baimena eman nahi dio GCHQ (Gobernuaren Komunikazio Kuartel Nagusia) inteligentzia-agentziari epailearen baimenik gabe ere herritarren telefono deiak, mezu elektronikoak eta Interneteko bilaketak zelatatzeko. Informazio hori guztia, gainera, administrazio ugari eskuratu ahal izango lukete: udalek, ingurumen batzordeek, segurtasun indarrek... Gobernuaren asmoa zen araudi

berria maiatzaren 9an aurkeztea, baina askatasun zibilen aldeko kolektiboek eta batez ere koalizio-gobernuko kide diren parlamentari liberalek egindako kritikek albiste atzeratzea bultzatu dute. “Gobernu britainiarrari baimena ematen bazaio Facebook eta Skype moduko nazioarteko enpresetara sartzeko, zerk eragotziko die beste gobernu batzuei sarbide bera eskatu eta lortzea?”, galdetu du Danny O’Brien Kazetarien Babeserako Komiteko (CPJ) kideak. Zenbait adituk, bestalde, informazio hori guztia “funtzionario ustelen” poltsikoetara iristeko arriskuaz ohartarazi dute.



WIRE

dela sektore batzuetan. Smartphonentzako aplikazioek ematen diote min gehien, Google-en bilaketa motorrek ezin baitute sakelakoetatik erabiltzaileen informazioa eskuratu. Horregatik oparitzen du Android sistema eragilearen lizentzia, teknologia hori erabiltzen dutenek zer egin eta esaten duten jakiteko". Eta berdin sufriarazten du Facebook-ek. "Sare sozialera konektatzean, internautek Google-en zaintzari ihes egiten diote. Han dauden bitartean, ez daki zer egin, esan, bilatu edo igotzen duten. Ez daki ezer eta horrek ernegatu egiten du. Eta ernegatzen du, batez ere, ikusi duelako publizitatearen pastelaren parte handi bat galduko duela kontrola berreskuratu ezean, gure informazio pribatu guztia euro bakar bat ordaindu gabe lortzerik ez badauka". Facebookek oso eragin handia du. 'Atsegin dut' botoiari esker Internet kolonizatzen ari da, eta haren tentakuluek publizitatea setiatzea da Google-en beldur nagusia.

Hastapenetan ez bezala, Facebookek gure informazioa publiko bezala hartuko du baldin eta kontrakorik adierazten ez badiogu. Pertsonalizazioaren eta pribatutasunaren arteko gatazka sortu du horrek: neurrira egingako zerbitzu pertsonalizatuez gozatu nahi izanez gero, beharturik gaude informazioaren parte bat zabaldu eta partekatzera. Dena

den, badirudi pribatutasuna mantentzeak ez dituela erabiltzaileak gehiegi kezkatzen. 900 milioi erabiltzaileetako askok ez dituzte euren pribatutasun konfigurazioak moldatu, eta profil erabat irekiak dituzte, agian horren jakitun ez diren arren. Beraz, Facebooken jarritzen dugun informazio guztia potentzialki publikoa dela argi izan behar dugu, ez baikaudelarik haren menpe, baita euren segurtasun profilak aldatu ez dituzten lagunen esku ere. Areago, erabiltzaile batek Internetez irakurtzen dituen artikuluen berri ere ematen die haren lagunei Facebookek, 'Jon Tornerrek *Driver*, *Google-en laino berria* artikulua irakurri du' moduko oharren bidez.

Facebook, Google... Izen horiek hainbeste errepikatu ditugu artikuluan, euren tranpan bete-betean harrapatu gaituztela onartzea besterik ez dugula. Hori baitute hein batean helburu, herritar zein hedabideek haiei buruz hitz egin eta oihartzuna Sarean biderkatzea, bai baitakite kritikek apenas egingo dietela kalterik, erabiltzaileok gehiegi kexatu gabe bihurtuko garela euren negozio-lerroaren ardatz. ■

argia.com Informazioan sakontzeko lotura ugari gehitu ditugu bertsio digitalean.



Hodeiek ez ditu zientziak bereziki gustuko, baina Estibaliz zientzialari iaioa da; udan bizi izan duten maitasun-istorioaren ondoren, Hodei zientziekiko duen ikuspuntua aldatzen hasi da...

Zientziak ala giza zientziak? Zuk noren aldeko hautua egiten duzu?

2011ko CAF-Elhuyar sarietan Gazteei zuzendutako zientzia-narratioak kategorian saria jaso zuen proiektuaren emaitza da liburu hau.



ELHUYAR
edizioak

ZzL

12-16 urte

Gazteentzako zientzia-narrazioen irakurketa-liburua, zientziaren eta literaturaren arteko zubia.

**% 10
merkeago**
eta
bidalketa-gastuak
DOAN

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatu dezazun, Elhuyarren zientzia eta euskarazko produktuak % 10 merkeago eta bidalketa-gastuak doan apirilaren 23tik maiatzaren 7ra.

www.elhuyar.org/edizioak



Ixabel Aleman

«Erditzea da bizitzan merezi duen min bakarra»

Aleman emagina da eta erditze fisiologikoaren alde egiten du, haurrak mundura ekartzeko modurik onena naturaren erritmoak errespetatzea dela sinesten duelako. Asaldatu egiten da ikustean gaur egun erditzearen une magikoa ahalik eta azkarren bete beharreko tramite huts ari dela bilakatzen, alde emozionala baztertuta. Erditze minaz, plazentaz, haurrez eta orobat Amaiurko gaztelu zaharraz edo auzolanaz hitz egin dugu presarik gabe, belai berdeei so.

REYES ILINTXETA

Argazkiak: Dani Blanco

Zergatik emagin?

Prozesu bat izan zen. Erditzea zer zen banekien, erizaina naizenetik, baina ez ninduen bereziki erakartzen. Ideia gero heldu zitzaidan, Salvadorrera joan nintzenean. Hango gerra akitu zenean sei hilabeterako Askapenarekin joatea erabaki nuen. Hantxe erditze gehiago ikusteko aukera izan nuen, ni nengoen herrixkako klinikan izaten baitziren anitz. Egun batean gertatu zena grabatua dut buruan: klinikako arropa garbitu berria hedatzera joan nintzen eta horretan ari nintzela, etorri zen emakume bat uzurtuta haurra izatera eta nik arropa hedatetik akitzera orduko, emakumea bazihoan bere haurrarekin etxera. Harrituta gelditu nintzen, nik neukan irudia oso bertzelakoa baitzen: ohatze berezi hori, emakumea etzanda, hankak gora, sueroz eta kablez beteta... eta “zer da hau?” pentsatu nuen. Hasi nintzen erditzetan egoten eta orduan ikusi nuen zer garrantzia duen prozesu fisiologikoa errespetatzeak. Horrela piztu zitzaidan grina eta hona bueltan, Elizondoko Emakumearen Arreta zentro berrian lanean hasteko aukera izan nuen. Zazpi urte geroago espezialitatea egitea erabaki nuen, jakinda nik erditzeetan laguntzen ikasi nahi nuela baina modu berezian. Bartzelonara joan eta espezialitateko bi urte horietan ez nuen deus ere ikasi horretaz. Sufritu nuen, ederki gainera, baina argi ikusi nuen zer ez nuen nahi.

Eta zu zeu ama izan zinen orduan, lehen aldiz. Bai, haurdun nengoen eta erditze fisiologiko-

an sinesten banuen, nik ere horrela saiatu behar nuela serio planteatu nion neure buruari. Erabaki horren inguruan zalantza asko izan ditut. Profesionalen formakuntza hain medikalizatua eta horren interbentzionista izanda, banekien nik lan egiten nuen ospitalean zaila izanen zela nahi nuena lortzea, ez hainbertze lankideek nahiko ez zutelako, ez zekitelako baizik. Horregatik erabaki nuen erdibideko soluzioa: etxean erditzea, ospitale-tik gertu, emagin baten laguntzarekin eta aurrera egin ahala, unean uneko erabakiak

Nortasun agiria

Ixabel Aleman (Amaiur, 1968ko azaroaren 12a) erizaina da. Bi urtez emagintza espezialitatea egin zuen Bartzelonan. Erditze fisiologikoaren alde egiten du lan. Etxeetan erditzen laguntzen aritu da duela gutxira arte. Maddi, Eneko, Gar-txot eta Eunateren ama da. Jaimeneko Borda, XVIII. mendeko baserri ederra, haien etxea da eta haren atal bat landetxe bihurtu dute. Baratztea eta oiloak dituzte, zerria hiltzen dute eta lurretik gertuko bizimodu horrekin eroso sentitzen dira. Egun eszedentzia hartua du lanean, haurrak koskortu arte. Bitartean, auzolanean aritzen da herrian: Amaiurko gazteluan bisita gidatuak egiten, Maule herriarekin antolatzen ari diren ikuskizuna prestatzen, informatika eza-gupenak bertze emakumeekin partekatzen...



hartzea. Ikusten nuen hamar emakumetarik bederatzik eskatzen zutela anestesia epidurala, adibidez, eta ez nekien neronek nola jokatut behar nuen une horietan.

Gehiago ezin nuela uste nuen momentu bat iritsi zen, baina orduantxe sortu zen Maddi. Hori niretzat, pertsona eta emakume bezala, itzela izan zen. Esperientzia hori pasatu izana baliogarria izan zait gero, bertze batzuei lagundu ahal izateko. Mina ez da batere arrazionala. Momentu horietan animaliak gara eta arront primarioak gainera. Minak beldurra ekartzen du eta sentimendu anitz azaltzen dira erditze momentuan. Horregatik pentsatzen dut, horrelako egoeran dagoen emakumeari laguntza emateko aski garrantzitsua dela zuk izan duzun esperientzia: zeu hortik pasatu eta gainditu izana. Indarra eta segurtasuna ematen dizu berari transmititzeko. Zortzi urte pasatu dira eta oraino ez dut atzendu, nola limitera iritsi eta ikusita ez nintzela hil, ez nintzela erdikatu, zer indar eman zidan horrek. Ikaragarria.

Hurrengo haurrak modu berean heldu dira?

Lezioak ere izan ditut. Bigarrenarekin hemen nintzen, etxean, lasaigo, baina psikologikoki oso gogorra eta luzea izan zen. Umiltasun lezio bat. Erabaki nuen hemen etxean erditzea, jakinda Iruñeraino bidea ez dela motza, ordu-bete inguru, eta hori ez da zuhurrena. Kezka anitz presente nuen erditze momentuan. Hondoratzen ari nintzen une batean pentsatu nuen ospitalera joatea erabakitzen banuen ezin izanen niela bertze emakumeei etxean erditzen lagundu. Eta ez banintzen joan ez zen niregatik izan, ondoan nituen bi emaginengatik baizik. Haiek izugarrizko indarra, behar nuen indar hori, eman zidaten. Hirugarren eta lauugarrenarekin dena errazagoa izan zen.

Erditze momentua arras garrantzitsua izanik ere, hura apaltzen saiatzen gara.

Ez dugu oharu ere egin nahi: zertarako mina pasatu? Baina eztabaida ez dago eremu horretan, gaixotasun batekin konparatzen ari direlako, eta ez da gaixotasuna. Prozesu fisiologikoa da, arrunta gure gorputzean, baina gaur egun hori medikalizatu egin da eta min horri arront ikuspuntu negatiboa eman diogu. Min horrek alertan jartzen zaitu eta konektatu egiten zaitu barruan duzunarekin. Hor komunikazioa sortzen da. Gorputzari kasu emanez gero, ikusten da min horrek arnasbide modu berezia eskatzen duela. Inork ez dizu esan behar nola hartu arnasa. Gorputzak erakusten dizu. Fisiologikoki arnasa sakonki hartzen dugunean odola oxigenoz betetzen dugu. Odol aberastu hori umeari bidaltzen diogu eta horrek indarra

Baztan

“Baztan filmerako erditze bat errodatu genuen. Nik baldintza batzuk paratu nizkien: fokorik ez eta pertsona bat edo bi, gehienez. Pertsona bakarra sartu zen kamerarekin, umearen aita zena, gainera, eta giro egoki horretan erditu zen emakumea, nahi izan zuen bezala. Arras ederra izan zen”.

Emagin ibiltaria

“Etxez etxe laguntzen aritzea arras betetzen duen lana da, baina neke ikaragarria sortzen du. Hogeita lau ordutan prest eta aurkitzeko moduan egon behar duzu, eta hori lau haurrekin aski zaila da”.

ematen dio kontrakzioaren momentuan. Badago komunikazio fisiko eta emozionala. Emozioek eragina dute hormonetan eta hauek dira prozesu fisiologikoak abiarazten dituztenak. Ospitalera iritsita emakume askori gertatzen zaie hango giro hotzak, egoerak berak eragiten diela, eta prozesu fisiologikoa trabatu egiten zaie. Erditze hori zaildu egiten da eta bizipena ere gogorragoa gertatzen da. Bertze adibide bat: batzuek uste dute ez dela oihu egin behar. Hobeki daramala oihurik egiten ez duena. Gezurra. Barnetik ateratzen den oihu horrek irekitzen du perineoa, ahoa eta bagina konektatuta daudelako.

Nola sortzen garen berebiziko garrantzia du. Erditze bakoitzak badu bere erritmoa eta hori errespetatu behar da. Mendian bezala gertatzen da: zure erritmoan bazoaz, ongi zoaz, baina norbait ari bazaizu ipurditik ziztaka, eta fiteago hasten bazara, leher eginda iritsiko zara goiti. Ordu bat lehenago, baina leher eginda. Hemen berdin. Ume anitz leher eginda iristen dira eta amak ere modu berean.

Bertzalde ez dugu inor kulpabilizatu behar. Nik aukera izan nuen nahi nuen bezala erditzeko baina beti ez da posible. Mugak alde guztietatik ditugu eta hori jakitea eta onartzea garrantzitsua da. Afera honetan ere, lehia eta moda puntu bat dago batzuetan, eta hori ez da kontua. Ez dakigu nola erreakzionatu behar dugun, gauza anitzek eragiten dutelako. Apal-apal onartu behar dugu hori, baina gai garela ere jakin eta sinetsi behar dugu.

Denak etxean erditzetik, ia denak ospitalean erditzera pasa gara urte gutxitan.

Lehen etxean erditzen ziren bai ala bai, mediorik gabe. Heriotza onartuagoa zuten orduan. Handik pasa gara erabateko medikalizaziora, hau da, ospitaleetan erditzera protokolo baten barnean eta prozesu fisiologikoa errespetatu gabe. Azken 40 edo 50 urte hauetan emakumeak oso gaizki tratatuak izan dira: ohatzeari sueroarekin lotuta, senarrik gabe, informaziorik gabe, epiduralik gabe... Baldintza horietan erditzea oso gogorra zen. Nola ez zuten, ba, epidurala eskatuko? Arrazoi guztiairekin.

Zer izanen zen onena?

Onena izanen zen tarteko bide bat, emaginek kudeatutako etxe bat, ospitaletik gertu, non giro berezia eta erritmo desberdinak errespetatuko ziren. Tarteko bide hori aldarrikatzen ari gara eta bitartean batzuok erabakitzen dugu etxean erditzea, baina baldintza batzuk beteta: formakuntza berezia duen emagin eta profesionalekin, haurdunaldi kontrolatua eta normala izatea, arazorik ez aurreikustea, ospitalera erraz mugitu ahal izatea behar izanez gero, eta abar.



Eta erditze plangintza?

Orain idatz daiteke zer nolako erditzea nahi duzun, baina ez dakit zer puntutaraino balio duen, profesional batzuek ez dutelako onartzen inork erratea zer egin behar duten. Zorionez gauzak ari dira zertxobait hobetzen.

Zilbor-hertzea donatzera animatzen gaituzte.

Onena da zilbor-hertzea taupadak gelditzen direnean moztea. Segundo bakar batzuk edo minutu batzuetako kontua izan daiteke. Modu honetara hor dagoen odola haurrari pasatzen zaio eta neonatologoei diotenez, batzuek behintzat, hori arras baliogarria da lehenbiziko sei hilabeteetan anemiari edo bertze gaixotasunei aurre egiteko. Baina orain bertze afer bat sortu da: zilbor-hertzearen donazioa egin nahi izanez gero, lehenbailehen moztu behar da zelula horiek hartzeko. Ume jaioberriari ez zaio berea den odol hori aprobetxatzen uzten, baina horretaz ez da informatzen. Nik euskaratu nuen amei ematen zaien baimena eskatzeko agiria eta hase-

Elkarriketa
Jaimeneko Bordan
egin genuen, bere
etxean. Balkoitik,
Amaiurko monolitoa
eta gaztelu zaharra
zegoen muinoa
ikusten dira.

rretu nintzen egia osoa ez duelako erraten. Eztabaida hori jarri nahi nuke mahai gainean. Informazio osoa eman behar da eta gero jendeak erabaki dezala. Zer interes daude donazioekin? Halere, ez nago donazioaren kontra, baina bai informazio osoa ematearen alde. Nire lanean eztabaida etikoak egunero sortzen zaizkit. Interes anitz daude eta batzuetan talka egiten dute etikarekin.

Amatasuna zer da zuretzat?

Erditzeaz gain, kontraerrian pila. Ni barne eztabaidan nago duela zortzi urtetik honat, egunero. Heziketa dela, osasuna dela... Bat-batean ikusten duzu zeure burua bertze pertsona bati eragiten dioten erabakiak hartzen. Horrek batzuetan erru sentimendua dakar, gainera emakumeak horretan espezialistak gara. Baina horrek geure muga pertsonalekin zerikusia daukan ikasbidea ere badakar: eginen dut ahal dudana. Beti ari zara ikasten, ume zaharrenarekin, batez ere. Gai dituta sentitzen zara batzuetan eta nekatuta, baina

lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



AZKEN HITZA

Gizartea eta medikuntza

"Gizartearen eta medikuntzaren artean dagoen harremana arras eria da. Eta hor erru handia sanitarioak geronek izan dugu, oso paternalistak garelako. Gizarteak ez du erabakirik hartu nahi eta dena delegatzen du medikuengan. Bertzalde, aitzineko arrazoi horregatik, haiek behartuta ikusten dute beren burua hamailka erabaki hartzea eta batzuetan, beldurragatik, behar baino prekauzio gehiago hartzen dute. Gehiegizko arretak ekartzen ahal ditu ondorio kaltegarriak. Horri iatrogenia deitzen zaio.

Honen aurrean nik uste dut profesionalok gizartearen mailara jautsi behar dugula, inor ez baita inor baino gehiago, eta behar den informazio guztia eman behar diogula jendeari, haiek erabakiak har ditzaten edo, behinik behin, bi aldean artean erabaki dezaten. Informazioak erabakitzeko ahalmena ematen du".

alde onak oso ederrak dira: niretako haurtzarorekin berriro konektatzea izan da, nire gurasoekin izan dudana harremana eta atzenuak dituzun gauzak berriz azaleratzea. Lau ume horiek haien artean nola moldatzen diren eta nola guri ere, tarteka, haien txikitasun mundu horretan sartzen uzten diguten ikustea aski gauza ederra da.

Denboraldi batez etxean gelditzea erabaki zenuen. Kontziliazioa zaila ikusten duzu?

Txikia eskolan hasi arte, ni etxean gelditzea erabaki genuen. Errazago egingen zitzaidan, agian, lanean egotea, alor profesional hori menperatzen duzulako, arrazionalagoa delako eta sorpresarik ez duzulako izaten. Haurrekin, aldiz, ezin duzu inoiz jakin zer gertatuko den gero. Agian haiekin dantzan ari zara eta handik gutxira haserre. Gogorra da ni ez naizelako etxeko emakumea eta onartzen dut horregatik niretzako tarte bat bilatu behar izan dudala, herriko gauzetan, bereziki kulturarekin zerikusia duten ekimenetan inplikatzuz. Profesionalki uste dut lan urte pila izan den dudala eta aukerak izan den ditudala horretan aurrera egiteko. Uste dut itzultzen naizenean ere gustura ibiliko naizela.

Zuretzako denboraren zati bat auzolanean ematen duzu. Zertan?

Amaiurko gazteluan bisita gidatuak egiten, adibidez. Lau herritarrek erabaki genuen pixka bat formatzea, hemengo historia eta Aranzadi Elkartea bere indusketekin egiten ari den lana jendeari erakusteko. Bertze aldetik, aurten Mauleko herriarekin ari gara ikus-

Erditze minak

"Erditzea da bizitzan pasatzea merezi duen min bakarra, konpentsazioa ikaragarria delako. Erditze min batetik bizitza dator".

kizun bat prestatzen Pier Paul Berzaitzen zuzendaritzapean. Ez da pastoralera, baina horiek bezala antzerkia, dantza, musika eta bertsoak bilduko ditu. Arras ederra da. Uztailaren 21ean, Baztandarren Biltzarraren bezperan, egingen dugu hemen, eta Maulen abuztuan, bertze bi egunez.

Udazkenean estreinatuko den *Baztan* pelikulan ere agertzen zara.

Hiru sekuentziatan agertzen naiz. Lehena erditze bat izan zen, gaur egungo garaian kokatua eta ni nire lana egiten ageri naiz; bigarrrena Santa Anan, Urtsuako jauregiko ermitan; eta hirugarrena Lur diskotekan, paper arras txiki batekin. Oso gustura aritu nintzen.

Azkar, eskuoihalak eta ur beroa! Zineman eta telebistan ikusten diren bezala dira erditzeak?

Ahaztu. Normalean ez dute zerikusirik errealitatearekin. Hor ikusten diren emakumeak paper bat ari dira interpretatzen eta ez dute ongi egiten, gainera. Arras puntu arrazionalatik hartzen dute. Egia ez dute deus. Telebista bidez ematen dituzten egiazko erditzeak ere, soilik gauza bat transmititzen dute: mina. Amaren aurpegiaren plano hurbil-hurbila, kableak, haurraren burua ateratzen, hurbilegitik ere, eta oihiak: bultza, bultza... Terriblea! Laztanak, begiradak... ez dira ageri. Bizian egiazko erditzeak ez dute horrenbertze inpresionatzen zentzu horretan, maitasuna eta momentuko emozio guztiak sumatzen dituzulako. Mina parte bat da, bertzerik ez. ■



Gaur ere zentzua duen euskal jaiotzaren errittoa

Ereñotzun (Hernani, Gipuzkoa) atsolorra egin zuten apirilaren 29an, 2011n jaiotako haurrei auzoan ongi-etorria emanaz. Balio izan zuen hainbat belaunaldi batzeko, kide berriei onespina eta gurasoei babesa emateko eta jakintza eta oroitzapenak transmititzeko. Urtero egin asmo duten errito honen zentzuaz hitzaldia eskaini zuen Mari Karmen Basterretxeak.

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Argazkia: Jon Urbe / Argazki Press

“GURE IZATEAREN hasieratik dator atsolorra eta 1970eko hamarkadara arte iraun du. Hor galdu da”, data zehaztu die Basterretxeak askok etxean entzunak ditugun kontuei. Galeraz gutxi kontatu izan digute, ordea; “milaka urtetan eraldatzen joan izan da errito hori, eta XVI. mendera arte arazorik gabe iraun zuen. Baina XVI. mendean gogor inposatu zen bataioa legearen bitartez eta horrek eragin zuen murrizten joatea”. Emakumea umeaz erditu eta 15 bat egunera (ama eta haurra indartzean), auzoko emakumeak haren etxean bildu eta bakoitzak eramandakoarekin festa modukoa egiten zutela jai arratsaldean, hori da heldu zaiguna.

Ez zen festa hutsa, ordea. “Jaiotzaren errittoa zen, eta erritoeen bidez komunitateak onartzen du bakoitzaren egoera. Onarpen horretan pertsona ere sendotu egiten da” azaldu du Basterretxeak. Atsolorra garraioaren kontzeptuari lotuta dagoela dio: “Elkartzen gara auzoko emakumeak, familiakoak, amarekin eta haur jaioberriarekin. Harreman horretan dago indar berritze bat, laguntasuna, eta jakinduria transmisioa. XIX. mendera arte emakumeak erditzerakoan beste emakumeen laguntasuna zeukan, umea ongi ateratzeko, eta behar guztiak asetzeko (beste seme-alabak, etxeko lanak...). Familia eta emakume hori aurrera ateratzeko. Erditzeko unean laguntzera zihoazen emakumeek, esperientzia zeukaten, milaka urtetako jakinduria”. Batetik bizitza aurrera ateratzeko bultzada zen atsolorra, eta bestetik komunitatearen onarpena: “Komunitateko beste kide bat gehiago dugu, eta beste ama bat gehiago daukagu. Hori oso inportantea zen eta galdu egin dugu: bizitzaren garrantzia. Eta konpromisoa hartzea komunitate gisa, herri gisa umea zaintzekoa eta babestekoa”.



Gaurko etxeek ezin lehengo baserriek adina jende hartu. Auzo udalean egin zen, hortaz, atsolorra. Belaunaldi denetako auzotarrak elkartu ziren (gizon zein emakume) iaz jaiotako 11 umeei eta beren gurasoei onespina eta babesa emateko. Txalapartarekin eman zitzaion hasiera, ohitura zen bezala, eta Ansa ahizpek kantuan aurkeztu zituzten umeen izenak. Ainhoa Agirreazaldegi eta bion bertsoen ostean, afari-merienda egin zen.

Elizak galdu zuenekoa

Atso hitzak duen karga elizaren lana dela azaldu du Basterretxeak: “Gure kulturean emakume heldua, atsoa, adineko emakumea jakintsua zen. Aurreko belaunaldien jakinduria jaso delako. Elizak emakumearen kontra egin zuen, kultura hori ezabatu eta bere kultura inposatzeko. Atsoa, emakume jakintsua akabatu egin behar zen. Sorgina akabatu egin behar zen. Hortik dator gutxiespena bai sorgin eta atsoekiko, eta 500 urtetan oso sartu zaigu buruan. 500 urteotan emakumeen kontra egin den historia oso gogorra daukagu. Guk gure kultura galtzeko egin zuten, ezabatzeko”.

Atsolorraren oinarrian dauden gizarte balioak ikusirik (biziraupena, elkarlana, elkar zaintza, babesa, nortasun pertsonala eta kolektiboa...), hau gabe zer? galdetu du Basterretxeak: “Bakardadea, hutsunea, ez dago komunitatearen onarpenik... Desegituratuta geratzen gara”. Gaurko gizarterako auzolanaren balioa ikusten duten komunitate batzuek, Ereñotzu adibide, atsolorra berreskuratzeari ekin diote. ■



«Norbanakoen informazio genetikoak berebiziko babesa behar du»

Zaragoza (Espainia), 1952. Zuzenbide Penalean katedraduna da, eta 1996tik ari da Euskal Herriko Unibertsitatean. Urtebete geroago, EHUK eta Deustuko Unibertsitateak 1993an sortutako Zuzenbidea eta Giza Genoma Katedrako zuzendari izendatu zuten, eta karguan jarraitzen du harrezkeroztik. Gurekin mintzatu da genetikaren eta, oro har, bioteknologiaren aurrerapenarekiko zuzenbideak izan behar duen jokabideaz.

UNAI BREA

Argazkiak: Iñigo Azkona

Zuzenbidea eta Giza Genoma Katedra 1990eko hamarkadako ideiarik onenetakoa izan zela esan izan dute. Ona ez ezik, beharrezkoa ere bazen?

Baietz uste dut. Bioteknologiaren garapenak eragina eduki dezake, etorkizunean, gizakien-gan zein gainerako izaki bizidunengan; gara-

pen horri zuzenbidearen ikuspuntutik arreta ematea ideia ona izan da.

Zuzenbideak mugak ezarri behar lizkioke ikerketari?

Independenteak direla esango nuke. Zer arazo sortzen den ikusi beharko da, eta nola egin behar zaien aurre. Baliteke kasu batzuetan zientzialariei beren erantzukizunaz ohartarazi behar izatea. Batzuk erabat arduratsuak dira, eta beste batzuek aurrera egitea beste helbururik ez dute; sarritan, norantz doazen jakin gabe. Aurrera egitea diodanean, urratsak egiteaz ari naiz, baina ez derrigorrez hobetzeaz. Gizarteak badauka zer esana, eta gizartearen zati bat zuzenbidea da. Ez da hori galga edo debeku tresnatzat hartu behar.

Egon da zuzenbidetik zientziari begiratzeko beharra agerian utzi duen gertakari jakinik?

Katedra bezalako tresna bat sortzea bultzatu zuena Giza Genoma proiektua izan zen, 1990eko hamarkadaren hasieran. Hori izan zen une erabakigarria, baina aurrekari bat egon zen 1970eko hamarkadan, biologia molekularrari buruzko ikerketek indarra hartu zutenean. Ordurako, biologo molekularrak ohartuta zeuden beren ikerketak noraino irits zitezkeen, eta zer ondorio izan zitzaketen gizateriarentzat. Bi bilera egin zituzten Kalifornian, eta esan zuten batetik gizarte osoa inplikatu behar zela, beraiek ezin zituztela zenbait urrats egin gizarteak babesten ez bazi-





tuen; bestetik, irizpide orokortzat hartu zuten zenbait ikerketa-lerro geldiaraztea haien balizko ondorioei buruz ezagutza handiagoa eduki arte. Hori, gerora, ez zen errespetatua izan.

Zenbateraino eragin dezake katedrak? Legedian aldaketak eragitera iritsi zaitezke?

Esaterako, [Espainiako] Ikerkuntza Biomedikuaren Legean parte hartu genuen. Geuk egin genituen lehen zirriborroak, Gobernuari aurkezteko. Gero, erabakiak politikariek hartzen dituzte, gu teknikariak gara.

Eta ikerketa proiektuetan eragiten duzue?

Parte hartzen dugu. Bada Europar Batzordeak finantzaturako proiektu bat biobankuei buruz. Hau da, giza jatorria daukan material biologikoa, ikerketan erabiltzekoa. Proiektu hori katedrak koordinatu zuen. Beste adibide bat: Kontseilu Europarrean Bioetika Batzor-

"Baliteke kasu batzuetan zientzialariei beren erantzukizunaz ohartarazi behar izatea; batzuek aurrera egitea beste helbururik ez dute, norantz doazen jakin gabe"

de Zuzendaria dago, eta horko kidea naiz; Espainiako Gobernua ordezkatzan dut teknika gisa, eta lantalde bat zuzentzen dut, test genetiko iragarleen eta aseguru-kontratuen arteko harremana aztertzen duena. Gure

asmoa da liburu berde bat argitaratzea, test iragarleei eta aseguru-kontratu pribatuei buruzko kontsulta dokumentua izango dena.

Ez dago legedirik horri buruz?

Herrialde batzuek badute, baina gutxi. Analisi genetikoek etorkizuna aurreikusteko duten gaitasuna aztertzen da. Lehen, gaitasun hori oso mugatua zen, baina oraingo test batzuek gauza asko esan dezakete etorkizunaz.

Bezeroak etorkizunean izango duen osasunaz ari gara.

Jakina, hori oso garrantzitsua da aseguru-konpainia batentzat.

iRUÑAZARRA
TaBERNA • JaTETXeA

Merkaderes kalea, 15 · 31001 IRUÑA (Nafarroa)
T 948 22 51 67 · info@irunazarra.org · www.irunazarra.org

CuadraBus

www.cuadrabus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxes: 945 892 215
info@cuadrabus.com

Eta horri buruzko legedia daukaten herrialdeetan, zer dio legeak?

Ez dago irizpide bateraturik. Kontseilu Europarraren Giza Eskubide eta Medikuntza Batzordeak esan zuen ezin zela test genetikorik egin helburua gaixoaren artatzea edo ikerkuntza ez bazen. Baina ez dago finkatuta gerora zer erabilera eman dakioken halako test bati. Zuk analisi genetikoaren egin duzu osasun arrazoiengatik, eta aseguru-konpainiak horren emaitza eskatzen badizu, zer? Herrialde batzuek ez dute mugarik ipintzen, eta beste batzuen ustez test horiek kontrolatuta egon behar dute. Norbait egotzi etekina ateratzen saiatu liteke, esaterako, baldin bada ikerkizunean gaixotasun larri bat edukiko duela eta oso onuragarria izango den aseguru bat egiten badu. Baina egia esan, konpainia handien aldera desorekatu ohi da balantza. Legedian joera desberdinak daude, analisi horiek erabiltzea debekatzen baldintza jakinetan erabilera baimentzen. Berbarako, norbaitek kopuru batetik gainera saria kontratatuta nahi badu, informazio gehigarria eskatu ahal izango dio aseguru-konpainiak, dela test genetikoaren, dela beste mota bateko analisia.

Katedrak badu posizio bat norbanakoen informazio genetikoaren babesaz?

Ez. Nork bere iritzia dauka.

Eta zein da zurea?

Uste dut orokorrean pribatutasun ideia desagertzen ari dela. Zu orain, elkarrizketa hau egin ahala, oharrak idazten ari zara, eta beharbada idatzi duzu “aspertzen ari naiz tipo honekin”. Nik hori irakurriko banu, ez litzaidake gustatuko. Baina zuk puskatu egin dezakezu orri hori, eta gene bat, aldiz, ezin da puskatu. Nire ezaugarri biologikoez informazioa ematen duten milioika zelula dauzkat, nahiz eta, zorionez, ez duten den-dena esaten. Informazio hori ez da orainaldiari buruzkoa bakarrik, etorkizunari buruzkoa ere bai, beharbada neuk ere ezagutzen ez dudana. Uste dut informazio horrek berebiziko babes behar duela. Edozein informazio pribatu erabiltzeko garaian, baina batez ere mota horretakoa bada, alde zuzeneko oso argi egon behar da zertarako erabiliko den, eta ezin da hortik kanpora ezertarako ere baliatu. Beti ere, ondo definitu beharko litzateke “zertarako” hori zer den.

“Analisi genetikoaren egin duzu osasun arrazoiengatik, eta aseguru-konpainiak eskatzen badizu, zer? Joera desberdinak daude arazo horren aurrean”

Horra arazoaren gakoa. Zertarako?

Hori da Ikerkuntza Biomedikuaren Legeak arautzen duen alderdietako bat. Informazio genetiko anonimoa erabiltzen baduzu, ez da ezer gertatzen, inoiz ez da jakingo datu horiek norenak diren. Kasu horretan ez litzateke inongo arazorik egon behar. Baina ikerkizunak badiot, benetan justifikatuta dagoelako, laginaren jatorria den pertsonari buruzko informazio gehiago behar duela... Hor bada gatazka.

Edozelan, ia inork ez daki nola izango den bere osasuna etorkizunean, teknologiak aukera hori eman arren.

Badator, gutxika. Gurutzetako ospitaleko genetika zerbitzuan [Barakaldo] egunero ikusiko dituzu familia osoak.

Gerta liteke noizbait derrigorrezkoa izatea test genetikoaren egitea adin jakin batera helduta?

Gerta liteke.

Hori eskatzen duenik bada?

Joera asko dago eta ez dakigu zein nagusituko den. Baliteke esatea “bai, helburua prebentzioa bada”. Agian hori ez da hain txarra. Gakoa da informazio hori ez irtetea irten behar ez den lekutik. Ni neu ez naiz informazio hori besterik gabe erabiltzearen oso aldekoa. Baina pribatutasuna errespetatzea lortuz gero —beti egongo dira abusuak, hala ere—, ona izan liteke. Minbizia desagertzea lortuko bagenu, nor legoke kontra?

“Ez naiz informazio genetikoaren besterik gabe erabiltzearen oso aldekoa, baina pribatutasuna errespetatzea lortuz gero, ona izan liteke. Minbizia desagertzea lortuko bagenu?”

Hala ere, gaur egun jakin dezakegu pertsona batek minbizia edukitzeko aukera gehiago ala gutxiago daukan bere mapa genetikoaren arabera, baina ingeniariak genetikoaren urrun samar dago sendabidea eman ahal izateko.

Eta urrun segituko du luzaroan. Honetaz hitz egiten ari gara

Giza Genoma proiektua abiatu zenetik, duela hogeita urte baino gehiago, eta ez da egin aurrerapausorik. Kontua ez da esatea “hemen daukat 23.000 geneen puzzlea, eta bat kendu eta beste bat jarriko dut haren ordean”. Gene bat kendu eta beste bat ipintzen baduzu, ez dakizu nola eragin diezaikeen gainerakoei. Epigenetikak diosku geneen informazioa ez dugula gurasoengandik bakarrik jasotzen; gure bizipen biologikoek informazioa gaineratzen diete gure geneei. Geneak ez dira kanpokoarekiko ezaxola. ■





SARKOZY ari da erran eta erran
inork ez duela espainia izan nahi ;
eta zuzen dago ...

ordea:

- Hollandek Zapaterok bezain gaizki kudeatuko duelako ?
- Ala Sarkozy bera Raxoi bezain gezurtia delako ?

eta euskaldunok
lauak jasan behar ...

... edo
ez.



Carmen Valois

NUPEKO IRAKASLEA

Kapital mentala

Aspaldi irakurritako artikulu batekin nabil bueltaka egun hauetan. Hain zuzen, *Nazioen aberastasun mentala* (*The mental wealth of nations*, Beddington, 2008) izenekoa. Bertan,

Erresuma Batuan egindako ikerketa baten berri ematen du, hortik sorturiko ildo nagusiak aurkeztuz.

Hala nola, ikasteak duen garrantzia pertsonen bizitza ziklo osoan zehar zein neurozientzien ahalmena, hainbat gaixotasun edo eskola-zailtasun garaiz detektatzeko. Ondorio orokor gisa honakoa azpimarratzen du: herrien garapenerako ezinbestekoa da herritarren baliabide kognitiboak kapitalizatzea, aurrerapen soziala eta ekonomikoa lortzeko.

Horrez gain, kapital mentalaren kontzeptuaz mintzo da. Artikuluak dioenez, errekurtso kognitibo, emozional, estresarekiko erresistentzia, trebetasun sozial, eta abarrek osatzen dute kapital hori eta ongizate mentalarekin estuki lotua dago. Izan ere, elementu horien bitartez gai gara gizartean parte hartzeko, ekarpenak egiteko eta bizi-kalitate maila handia esperimentatzeko.

Geurera etorrita, Diego Graciak —mediku eta filosofo madrildarrak— berriki Donostian emandako hitzaldian, *Krisian balioak eta Balioen krisia*, zera zioen: Batzuentzat, ekonomikoa da krisia; ikuspuntu horretatik,



DANI BLANCO



Gizartean dagoen
herritar pasiboaren eta
aktiboaren arteko aldea
nabarmen agertzen da;
nik kapital mentalaren
erabilpenarekin lotzen
dut, eta balioekin



ekonomia ministroek eta gobernuek atera behar gaituzte hortik. Besteentzat, ordea, hori baino zerbait sakonagoa da, eta eredu ekonomikotik harago, egiturazko aldaketa eskatzen du; funtsean, balioak daude oinarrian. Eta ekonomia berez balio bat da, baina ekonomiak ez lituzke mende hartu behar beste balio batzuk, esaterako, justizia, askatasuna edo elkartasuna, ia desagerarazteraino.

Graciak aipatzen dituen bi jarrera horiek adierazten dute, nire ustez, zein den mutur bakoitzean dagoen subjektu mota. Esango nuke gizartean dagoen herritar pasiboaren eta aktiboaren arteko aldea nabarmen agertzen dela; nik kapital mentalaren erabilpenarekin lotzen dut, eta balioekin. Azken finean, kapital hori beste balio bat da, aktibatze ahalmena du eta etsipenari aurre egiteko tresna da.

Iruditzen zait, bada, kapital hori identifikatzea eta sustatzea ezinbestekoa dela. Uste dut haren erabilpena giltzarri izan daitekeela krisiaren kudeaketan, herrien ongizaterako, gizartearen kohesiorako eta bazterketa soziala saihesteko funtsezkoa delako. Eta ziur aski, herrien garapena neurtzeko adierazle gisa erabiliko bagenu, biharko mundua beste era batera eraikitze aurrerak sortuko genituzke. ■



TXANDAN

Josu Amezaga



Taldeak errepresentatzeko banderak oso aspalditik erabiliak izan badira ere, XVII.

mendetik aurrera itsasoan nabigatzean boteregune bakoitzaren ontziak bereizteko erabiltzen hasi ziren, gaur egun ezagutzen ditugun bandera nazional asko. Zeharo aldatzen ari zen mundua, inperio eta kontinentearteko merkataritzaren hedatzearekin, eta itsasoko nabigazioa zen aldaketa horren eragile handienetako bat. Zenbaitek hortxe kokatzen du, hain juxtu, globalizazioaren hasiera.

Aranatar anaiek ikurrina sortu zutenerako aldiz nazioak errepresentatzeko erabiltzen ziren banderak,

.eus ikurrina

eta asmo horrekin egin zuten haren diseinu arrakastatsua: geroztik Euskal Herri osoa ordezkatzeko duena.

Egun Interneteko nabigazioak hartu duen garrantzia duela lau mende itsasokoak hartu zuenaren parekoa da. Horregatik sareko jarioetan ezagutuak izatea ezinbestekoa dugu euskaldunok, munduan garela jakin dadin. ICANNen gure “.eus” ikurrin berriaren hautagaitza aurkeztekotan da, ea gauzak ondo eta arin ateratzen zaizkigun.

Imajina ote dezakegu zer izango litzatekeen Euskal Herria, duela ia ehun eta hogei urte ikurrina asmatu izan ez balitz? ■



Karlos Gorriñdo Etxeandia

EUSKARA TEKNIKARIA

Ikusezinak

Diru murrizketak, kanporatze masiboak, lorpen sozial gutxiak, ongizatearen estatua arriskuan, pobrezia, egoera honetara bultzatu gaituzte diru xahutze kompulsibok, kudeaketa negargarriek, handikien aberaste lotsagarriek eta politikarien jardura fraudulento eta korruptoek. Sistema neoliberal honen filosofiak eta ideologiak, labur esanda, aberatsak aberatsago eta pobreak pobreago egiten dituenak. Egoera ezin larriagoa bizi dugula ematen du. Sakana-ren sakonera erortzeko hurren gaudela, alegia. Hori dirudi. Eta dirudi diot, ezen kalean, egunean-egunean, lanetik atera eta ardo bat hartzera joaten zarenetan, tabernak jendez mukurik ikusten dituzu, astegun buruzuria izangatik ere. Zapatu-domeketan edozein jatetxetan bazkaltzeko-afaltzeko, aurretiaz eskatu behar duzu txanda. Aste Santuko oporrak gozatu dituztenak ere ez dira gutxi. Krisiaren aitzakiarekin baina, lau egunerako Norvegiako Fiordoetara joan beharrean, Benidorreko edo Algeciraseko eguzki beroaren atzetik ibiliko ziren seguruenik, eta Athleticek jokatu duen Errege kopako finalera joateko asmo dutenek ez dakit banketxean krediturik eskatuko duten edota gordeta duten diru poxia erabiliko duten bidaia, egonaldia eta zelairako



INIGO AZKONA



Ukaezina da, egunero entzuten-ikusten ditugun berriak ezin latzagoak dira.

Eta egoera honek ez du behea jo, antza. Baina salbuespenak salbu, kalean, gure herrian ez da antzematen benetako egoerak islatzen duen irudia



sarrera ordaintzeko. *Crisis? What Crisis?* abesten zuen Supertramp musika taldeak. Gero, agian, makina bat talo eta morokil jan beharko dute zorrak ordaintzeko! Gozatu dudana, nork kenduko dit ba dagoeneko?, pentsatuko dute, eta kito! Baina ukaezina da egunero entzuten-ikusten ditugun berriak ezin latzagoak direla. Eta egoera honek ez du behea jo, antza. Baina salbuespenak salbu, kalean, gure herrian ez da antzematen benetako egoerak islatzen duen irudia. Manifik, lanuzteak eta grebak eguneroko ogi izaten jarraitzen dute, eta izango da miseria gorrian bizi denik eta ahora mokadurik eramateko modurik izango ez duenik, eta aurrera egingo badu, gizarte laguntzen apurrarekin konformatu beharko denik. Baina gure kaleetan horrelakorik ez da hain nabarmen ikusten. Ikusezin, ukiezin bilakatu dira krisiaren eraginak baztertu dituen gizon-emakume aldrak, Indiako gizarte maila behekoenetako kastarik gabekoak bezalaxe. Ez dakiguna da sistema injustu eta insolidario honek betiko desagerrarazi edo irentsiko dituen (gaituen) edo bizitzaren (ekonomiaren) ziklo nefasto hau iraganda, ezerezetik edota errautsetatik aterata, aurrera egiteko gaitasuna izango duten (dugun). ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Bi eredu. Ipar-Hegoak antolatutako Mus Txapelketaren finala Gipuzkoako Seguran. Bikote zenbaiteko lagunak gaztelaraz mintzo, euskara arrotz. Iparraldekoek eus-

kara eta frantsesaz gain, gaztelera ezagun. Itzultzailearik gabeko komunikazioa burutzeko gauza, elkarrekin ikusi ditugu bazkal garaian eta ondorengo kantu-dantzen jostetan, pozik. Baigorriko Nafarroaren Egunean sei lagun borobilean. Baxenafar bi hegoaldeko lau. Hauetako batek nekez egiten du euskaraz. Beste hirurek bezala, ez daki frantsesa. Gaztelaraz ari dira. Baxenafarrak hemen ere gaztelera mintzatzeko gauza dira, elkarrekiko harre-

Bilgune nazionalak

mana eten ez dadin. Erdaldunak normaltzat hartzen du egoera, ez zaio arrotza egiten. Gehiengoaren parte da, ohitua da gutxiengoak berea mintza dezan, ez da harrizten ez lotsatzen. Etxean da. Ez du frantsesa behar, ez da euskalduna, alaba ikastolan duen abertzalea da. Euskara, gaztelera eta ingelesa mintzatzeko dituen alabaz harro da, *misión cumplida* esan du postretzat. Ez du erreparatu baigorriarrak etxeko hirurak erabiltzeko gauza direla, hegoaldeko festetan ez dutela ingelesaren beharrik bertako erdaldunekin harremanak izateko. Gutxiengoan bizitzeak badu bere abantaila. ■



BERTSO BERRIAK

Julio Soto

Beharrei jarriak



XZ

I

Laster hartuko dugu
guraso izena.
Autoa, badaukagu
golfa, gazteena.
Umearentzat txiki
geldituko dena.
Silleta, kapazoa...
trastea da dena.
Derrigor behar dugu
monobolumena.

III

Ba nik iPhona daukat
ez al daukazu zuk?
Emailak jaso eta
bidaltzen dizkizut.
Edozein duda: Google,
gomendatzen dizut
Watsapen sartu eta
lagunak han ditut.
Ez, ez, dudarik gabe
behar dut, behar dut...

V

Gara zazpi urteko
semearen kargu.
Pila bat maite dugu,
eskolan dihardu.
Ordenagailuakin
kezkatu xamar gu.
Edozein etxeko-lan
edozein enkargu.
Ez diogu erosi
nahi, baina behar du.

II

Ateratzeko nola
geldituko gara?
Ta galtzen banaiz, nola
deitu Ertzaintzara?
Ta nirekin hitz egin
nahi duenik bada?
Mugikor gabe nola
biziko zara ba?
Ez dago aukerarik
beharrezkoa da.

IV

Ba omen dator tren bat
azkarra, itzela.
Entzun dut AHT
deitzen diotela.
Baso, lurra suntsitu
behar dituela.
Zor handitan sartuko
omen gaituela.
Baina ez kezkatzeko
behar, behar dela.

VI

Behar bat da arnasa
haize sokatira.
Behar bat da esnea
jaio ta gutxira.
Lana, loa, lagunak...
Beharra hori da.
Baina gaur (begiratu
bestela herrira).
Behar ez diren gauza
asko behar dira.

DOINUA: Agur sagar beltzaran.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Literatura

Argitaletxe berria, edo!

Bi urteko hausnarketa prozesuaren ostean Edo! argitaletxe kolektiboa jendaurrean aurkeztu dute. Argitaratzeko zailtasunak izan ohi dituzten lanak kaleratuko ditu euskara hutsean, liburu formatuan zein digitalean, bazkide eta harpide sare batentzat. Edizio zaindua eta begirada kritikoa bultzatu nahi ditu, borondatezko lanean oinarrituz.

IRATXE ESNAOLA



Edo!-k UTZIA

Edo! argitaletxea jendaurrean aurkeztu da duela gutxi. "Hemendik aurrera bilerak irekiak izango dira, bazkide guztiak etortzeko moduan" azaldu du Iratxe Retolaza argitaletxeko talde eragileko kideak.

HAMAIIKA LAGUNEZ osatua dago Edo! argitaletxe jaioberriaren talde eragilea. Idoia Beraerbide ilustratzaile eta artista eta Iratxe Retolaza literatur kritikari eta irakaslea etorri dira, taldearen ordezkari, ARGIArekin egindako hitzordura. Orain bi urte ardura bertsoekin elkartu ziren kultur zaleok egindako irakurketaren arabera, argitaletxe gehienek, etekin ekonomikoaren mende dauden neurrian, libu-

rua merkantziatzat hartzera jo dute. Edo!-k sorkuntza eta literatura merkantilizaziora eramane dituen bideari itzuri egin nahi dio. Publikatzeko aukera gutxi dituzten lanak kaleratuko ditu, ohiko argitaletxeen eskaintzatik at geratu ohi direnak. Testu laburrez, itzulitako lanez, antzezlanek, gidoiek, marrazkiek, argazkiek, hitzaldiek eta katalogatzen errazak ez diren piezek ari gara. Bestalde, edizio lan txu-

kuna eskaintzeko asmoarekin sortu da Edo!, egun Interneten testuak zintzilikatzeko aukera badago ere, kalitateko edizio lana eskuratzea besterik baita. Argitaletxeek abiadura jakin bat izan ohi dute ediziorako epeak bete behar dituztelako. Horrek lan pausatua eragozten du eta Edo!-k eskaintzeko zerbait badu, hori denbora da. “Badira edizio lan onak, baina bada hainbat sortzaile, sentitu duena argitaletxeak ez duela behar bezalako lanik egin. Guk edizio zaindua eskaini nahi diegu sortzaileei”, azpimarratu du Iratxe Retolazak. Liburu bakoitzak izango du egileak egoki iritzitako edizio-taldea, berarekin elkarlanean ariko dena. Ondoren, taldean egon ez den beste batek berrirakurriko du, distantziatik azken iritzia emateko.

Argitaletxea bazkidez, harpidez eta laguntzailez osatua dago. Urtean gutxienez bost liburu ateratzea du xede, formatu fisikoan eta digitalean, harpidedun zein bazkide sare batentzat. Azken horien ekarpen ekonomikoa harpideenen bikoitza den neurrian, proiektuan parte hartzea berraztertuko die, aldi-aldi egingo diren batzar irekietarako sarbidea emanez. Nolanahi dela, dirurik eza ez da mugatzaile proiektuan parte hartzeko. Lankideek aldikako kolaborazioa edo ardura iraunkorrak hartzeko aukera izango baitute, nahieran. Edo!-ren apustuak bat diseinua eta arlo grafikoa zaindu eta behar duen garrantziaz hornitzea izan da. Hitzari bakanrik ez, irudiari ere garrantzia eman nahi dio. “Hemengoan aldean atzerriko argitaletxeetan diseinua asko zaintzen da, bai estetika mailan, bai lan grafikoa editatzerako orduan. Hemen liburuak ilustrazioak hurrei zuzenduak dira ia beti, ez helduei. Argitara-

Argitaletxeek abiadura jakin bat izan ohi dute ediziorako epeak bete behar dituztelako. Horrek lan pausatua eragozten du eta Edo!-k eskaintzeko zerbait badu, hori denbora da

tzen ez diren lanak berreskuratu nahi ditugu, eta gainera, lan zainduak argitaratu, egilea gustura gera dadin” adierazi digu Idoia Beratarbidek. 2012an kaleratzea aurreikusi dituzten bost liburuen artean Maite Gurrutxaga ilustratzailearen lan bat dago, egunero gainean eraman ohi duen koadernoaren erreplika bat, ohikoak dituen ilustrazioen ondoan lan intimoa dena. Gainera, obra bakoitzaren azala artista batek egingo du argitaletxeak izango dituen hiru bildumatan. Hiru sailok dira *Begi-koak* –album ilustratua, nobela grafikoa, argazkia, artea...–; *Lite-rola*, –saiakera, narrazioa, nobela, poesia, antzerkia...– eta *Xortak* –orrialde gutxiko testuak: hitzaldiak, saiakera laburrak, iritzi artikuluz luzeak, elkarrizketak, manifestuak...–.

Talde lana eta 2012. urterako uztia

Proiektu irekia da Edo!, hasierako pausotan funtsezko erabakiak hartu bitartean taldea “itxia” mantendu badute ere, gaur-gaurkoz ateak zabalik ditu edonorentzat. Urte hasieratik bazkide eta harpide bila jardun dira eta Retolazak gogorazten duenez: “Behar beste izatea eta nahi beste jende hurbiltzea da asmoa. Gogoeta berrietara zabalik gaude. Hemendik aurrera bilerak irekiak izango dira, bazkide guztiak etortzeko moduan”. Edo!-k literatur sisteman dauden aktoreak saretu nahi ditu. Talde eragileko partaide bakoitza sorkuntza esparru ezberdinetatik etorri izana –izan Sareinak, izan Mikelazulo Kultur Elkartea...– abantaila izan du eta aurretik aberastu egin du sarea. Sare horrexen borondatezko lanari esker gauzatu da 2012rako aurreikusten den beste lan bat, artikuluz bilduma bat. Transfeminismoaren inguruko esperientziak



Edo!-k UTZIA

Maite Gurrutxaga ilustratzaileak egunero gainean eraman ohi duen koadernoaren erreplika bat izango da Edo!-k argitaratuko duen lehenbiziko lanetako bat.

jasoko ditu, esparru horretako aktibisten ekarpenen bidez –Medeak taldekoak, esate batera– eta artikulu akademiko itzuliekin –Judith Butler, Beatriz Preciado...–. Hori guztia, liburuak beste modu batean osatzeko saiakerari lotua dago eta egile gehienekin zenbait puntu adosten ahalegindu dira, informazioa elkartrukatzeari garrantzia emanez. “Liburua egiteko moduetan ere izaera kolektiboa sustatu nahi dugu. Horregatik doaz gauzak geldoago” azpimarratu du Retolazak. Hain justu, elkarlan horretan oinarritu da baita ere proiektu kideen jarduna. “Taldean hainbeste izateak eztabaida bermatzen du. Lana delegatzen ikasten da, besteen lana errespetatzen, bata bestegandik ikasten” adierazi du Idoia Beratarbidek.

2012. urterako aurreikusi dituzten bost liburuak paperean eta formatu digitalean argitaratuko dira, baina mundu digitalean zer jarrera hartu erabakitzeke dute oraindik, irizpide nagusia doan izatearen aldekoa bada ere. Beste hainbat argitaletxerekin harremanetan jarri ostean, orotariko erantzunak jaso dituzte eta urtean aterako diren bost ale ziu- rrez gain, zabalik dute formatu digitalean lan gehiago ateratzeko aukera, ez baita ahaztu behar borondatezko lanerako aurkezten den jende kopuruak ere baldintzatuko duela lanaren martxa. Aipatutako Maite Gurrutxagaren koadernoaren erreplika eta artikulu bildumaz gain, Gari Garaialderen erreportaje grafikoa argitaratuko dute, zuri beltzeko argazkiz osatua. Harkaitz Canoren txaloren eta ikuskizunaren gaineko hitzaldi gogoeta bat ere bai, eta azkenik, *Eta Karmele?* Samara Veltek idatzitako antzerki obraren gidioa. Sortzaileentzako ateak zabalik ditu Edo!-k. Dagoeneko makina bat lan eskaini dizkiete eta bazkideen asanbladak egingo du liburu- en aukeraketa, ale argitaragarrien kopurua aurrekontuak baldintzatuko baitu.


“Liburua egiteko moduetan ere izaera kolektiboa sustatu nahi dugu”

IRATXE RETOLAZA,
EDO! ARGITALETXEKO KIDEA

Gizartean eragitea helburu

Argitaletxea oinarrituko duten printzipioak aski argi adierazi ditu Edo!-k prentsarako atondu duen aurkezpen dossierrean (Interne- teko helbide honetan irakur daiteke: www.argitaletxeaedo.org/?page_id=10). Independente da ezein erakunde politiko zein bestelako instituziotatik eta pentsamendu kri- tikoa sustatu nahi du. Beste hainbat argitaletxe eta eragilerekin elkartu dira azken bi urteota- ko prozesuan eta gehienek halako proiektua- ren beharra azpimarratu dute. Edo!-k ez du beste argitaletxeekiko talka bilatzen. Bere asmoa ez da “argitalpenen ere- muan dagoen ezer ordezkatzeko, kon- trakoa baizik: egun dagoen eskaintza osatzea eta aberastea”.

Bere irakurketatik, hori bai. Lehen aipatutako merkantilizazioak dakar- tzan galerak ezagun ditu eta bestelako norabidea bilatzen du argitaletxearen- tzat. “Badira epe batzuk argitaratzeko, dela Durangoko Azoka, dela Liburu- en Eguna. Aldi horietara lerratzen dira argita- letxeak saldu beharra dutelako, langileak dituz- telako. Guk borondatezko lanarekin mekanismo hori saihestu nahi genuke” diosku Retolazak. Horrekin batera, Edo!-ren ezaugarri erakargarrienetakoa gizarte eragile izateko saia- kera da, kultur sormenak gizarteari zer eskainia duela uste izateaz gain, eragin dezakeela uste baitu. “Liburuaren gizarteratzeko filosofia bat dago indarrean, jeneralean, publikazioa eta prentsaurrekoari lotua. Gure ardura ez da argi- taratzea bakarrik, baizik liburuaren inguruko eztabaida sortzea, ekimen, ekitaldi, zein mahai- inguruen bitartez. Argitaletxeak liburuaren gai- nean dinamika soziala sortzeko ardura hartu nahi du”. 2012. urterako bazkide eta harpideak biltzeko azken data San Juan egu- nean jarri dute. Facebook eta Twi- tter-en bisita daiteke, jadanik, baita www.argitaletxeaedo.org atarian ere. Ongi etorri, Edo! ■



Manillares Iturriaga

Rock talde jendetsuena

Noizbait ikusi al duzue 30 kidek osatutako musika talderik? Hori da ohikoa Alegiako (Gipuzkoa) Manillares Iturriaga taldearen kontzertuetan, ez dute alferrik asmatu “Koop-Rock” etiketa. Zuhaitz Iglesias, Manex Elola, Julen Goikoetxea, Amaia Goikoetxea eta Txarli Gesteira talde horretako kideak dira; furgonetan baino, autobusean ibiltzea nahiago duten rockeroak.

IRATI SARASUA ARABAOLAZA

2010EKO EKAINEAN sortu zen taldea, eta geroztik 18 aldiz aritu dira Euskal Herriko eszenatokietan. Urte hartan Alegian ospatu zen Musikaz Blai! festa aitzakia hartuta, 90eko hamarkadan herria astintzen zuen Ziklox Garaialde taldea gonbidatu zuten festaren arduradunek, berriz elkartu eta zuzenean jo zezan. Taldeak baietz, baina kontzertua jende gehiagorekin egitea gustatuko litzaiekeela. Herrian bazeuden gitarra, baxu eta bateria-jotzaileak, hiru musikari gaztek baiezkoa eman zieten eta orduan etorri zen ideia berritzailearen sorrera.

Zerbait berezia egin nahi zuten eta herritarren parte hartzea sustatu nahi zuten, izena ematen zuen pertsona bakoitzak Ziklox Garaialderekin kontzertuan abesti bat kantatzea otu zitzaien. Zortzi pertsonak eskaini zuten euren burua abeslari moduan, pixkanaka herriko jendea animatuz joan da, eta gaur egun 30etik gora abeslari ditu taldeak, horren ondorioz autobusetan eta furgonetatan egiten dituzte asteburuetako bidaia. Kontzertuetan txandatzuz aritzen dira abeslariak, instrumentu-jotzaileak dira emanaldi guztietan oinarri moduan mantentzen diren bakarrak.

“Ni herriko Gaztetxearen 25. urteurreneko kontzertuan egon nintzen eta harrিতuta geratu nintzen. Pentsatu nuen, ‘a ze inbidia! Ni ere animatuko naiz, aizu!’”, dio urteurrenaz geroztik taldeko partaide den Zuhaitz Iglesias-



MANILLARES ITURRIAGAK UTZIAK



Goiko argazkian Manillares Iturriagaren kontzertu bat, eromen betean. Behean taldekide guztien familia argazkia eta eskuineko orrialdean berriz, Alegiako Tontokalen jarri zuten giroa.

sek. Julen Goikoetxea bateria-jotzaileak dio hori dela bera gehien harritu duena, jendea hain erraz animatzea. Tabernan zerrenda jarri eta bi egunetan betetzen omen da. “Azken finean, bat animatuta beste bat animatzen da, eta horrela herritar asko elkartu dira, pilota berehala handitu da”. Adin-tartea ere harrigarria da, 18 urtetik 48 urtera bitarteko abesla-

riak elkartzen ditu taldeak, eta horrek herritarren arteko harremana indartu duela uste dute kideek. “Horren ondorioz kontzertuetan publiko moduan izaten dugun jendearen adin-tartea ere oso zabala izaten da. Gure seme-alabak ere gerturatzen dira, baita laster bilobak ere”, dio Txarli Gesteirak.

Ikusleen parte-hartzea sustatuz

Arratsaldetik joaten dira kontzertua izango duten herrira; beraz, gauera-ko lotura moduko bat sortzen da herritarren eta taldekideen artean, eta kontzertua nolakoa izango den jakinik, interesa pizten zaio jende-ari. “Nik uste dut herrietaraino joan, abestu, eta itzultzeko soilik, ez genukeela hau egingo. Aurretik eta ondoren sortzen den harreman horregatik egiten dugu batez ere”, dio abeslarietako bat den Amaia Goikoetxeak.

Normalean herrietara joaten direnean jendeak oso ongi erantzuten du, kalean jakiten dute Alegiatik 30 lagun doazela eta ikustera azaltzen dira, jakin-min hutsez bada ere. Eurek eta ikusleek ondo pasatzea helburu hartuta egiten dituzte kontzertuak, “beraz, kalitatea ez da izugarria izaten baina oso ongi pasatzeko parada izaten dugu guztiok, guretzat hori da garrantzitsuenak”, dio Julen Goikoetxeak. Gainera, publikoan dagoen jendea parte-hartzera animatzen dute eta erantzuna ona izaten da. “Festa bat izaten da, kontzertu bat da eta musika da, bai, baina batez ere festa da”, gaineratu du Gesteirak. Azken kontzertuetan eszenatoki azpian jendea begira abestien zerrenda jartzen dute alde aurretik zein abesti joko dituzten jakinarazteko eta



“Herrietaraino joan, abestu, eta itzultzeko soilik, ez genuke hau egingo. Aurretik eta ondoren sortzen den harremanarengatik egiten dugu”

**AMAIA GOIKOETXEA,
TALDEKO ABESLARIETAKO BAT**

gustatzen zaizkien kantetan gertatzen animatzeko.

Harremana indartu asmoz, Internetara ere egin dute salto, www.manillar.es bloga sortuta, bertan kontzertuen berri ematen dute. Horrez gain, badute twitter kontua ere www.twitter.com/Manillares, azken urteetan sare sozialek duten garrantziak bultzatu omen ditu horretara.

Entseguak ere festarako aitzakia

Entsegu oso bereziak izaten dituzte Manillaresko partaideek. Abendura bitartean bakoitzak bere abestia ikasi behar duenez saio luzeak egiten dituzte, astean sei ordu inguru pasatzen dituzte, oinarrizko gauzak zehazteko. Hortik aurrera, urte osoan abeslari bakoitzak kanta bera kantatuko duenez, kontzertuaren aurreko astean geratzen dira abestiei azken ukituak emateko. Entseguetan ere publikoa izaten dute; Alegia-ko Kultur Etxean elkartzen dira eta herritarrek berehala hurbiltzen dira musika soinua entzuten dutenean. Jendearen txaloekin asko animatzen direla nabarmendu dute taldekideek.

Hori bai, gazteak animatzea falta zaiela uste dute, 18 urtetik gorakoak direlako guztiak, eta 16 urte ingurukoak ere elkartzea gustatuko litzaieke. “Honek horrela jarraituz gero, edozer pasa liteke” dio bateria-jotzaileak. Taldeak izan duen garapean oinarritzen da hori azaltzeko, hasieran espero zuten kontzertu bakar horren ostean etorri diren 18ak, eta hasieran izena eman zuten zortzi abeslari horiek egun 30 direla kontutan izanik. ■



HOTELA IRIARTE JAUREGIA *****

Bidania (Bidegoian) Gipuzkoa • Tel: 943681234
www.iriartejauregia.com

Liburuak

KRITIKA


Apatxekin idazten

Helduen literatura | POESIA

Igor Estankona

BERTSO luze baten lehen puntua balitz bezala, eta hasierako poemari beti eman behar zaion potentziarekin, maisutasunez irekitzen ditu Gerediagak atea, zeharkatu egiten ditu zentauroak lez zelaia. Oraingo amodioaren eta bere bizitza osoaren pasarteak dakartza, lurra eta bihotza, ama eta aita, etxearen defentsa eta izerdia eta mina eta heriotza eta bizitza eta heriotza eta berriro bizitza daude bilboztarraren poesia erdi-erditik eta estalkirik gabe sortutakoan. Ez dauka eskrupulurik, galgarik, ez dauka denborarik galtzeko.

Sukarrak jotako *Fitola balba, karpuki tui* (Pamiela, 2004) baino harago doa Gerediaga *Zentauro-hankak* honetan. Orduko liburu ausart eta berdearen inguruan bagenioen azertu eta arriskueta erori zela, oraingoan esan behar dugu gizon emakumeen ametsen eta zentzumenen mugara hurre-ratzea plazer hutsa izan dela. Jadanik Gerediagaren idazkera ez da “interesgarria” edo “berritzai-



Zentauro-hankak.
Jon Gerediaga.
Pamiela, 2011.

lea”, jadanik ez da bakarrik sena, ezpada erraz identifika daitekeen ahots eta tonu propioa, nahas-menarena.

Oi, bost orrialdeko Gerediagaren diskurtsoak! Bidaian eroango zaituzte ahazturik zenituen subkontzienteko bazterretara. Arean ikonoklasta da eta, era berean, arean erlijiosoa eiteetan. “Zu” idealizatu bat maite du, baina jipoitu egiten du, ostikopetan darabil. Lurra eta zeru garbi bat erakusten ditu behin eta berriz, eta heriotza eta bizitza eta heriotza eta berriro bizitza, harik eta, errenditurik, bat egiten duen den guztiarekin, bere diskurtsoaren benetako jatorria den isiltasun eternoarekin: “Zugan irauteko/ oi lur bero/ lur honexetarako ni/ lur beltz honexetarako betiko ni”.

Zergatik, orduan, hiltzeko, hainbeste irudi, hainbeste irudipen? Seguruenik, Rimbauden antzera edo Jim Morrisonen letretan lez, poeta ameslari batek maitasunaren, sufrimenduaren, zorionaren, zoramenaren ordenarik eza ezin duelako antolatu, soilik deskribatu. Bizi. Eta deskribatze horretan erre egiten da Gerediaga duda barik, dena emanez kontsumitu. Batzuetan irakurleak duda egingo du *Zentauro-hankak* ez ote den itsutzen duen distira hutsa. Egia esan, poema liburu asko galdu dira alferrik norabiderik gabeko dibagazioan. Gerediagaren kasuan ez. Gerediagak erakutsiko dizu kaosaren benetako erdigunea.



Ermua

Liburu azoka maiatzaren 10etik 13ra, Cardenal Orben

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Hiri hartan izan zen
Mikel Markez.
Elkar.
Iraupena: 54'47".
14 euro.

Bidaiak bere baitan duen malenkonia eta jakinduria

MIKEL MARKEZ musikariak lan dezentekaleratu izan ditu eta hala jarraitzen du, entzule askok gogoia iraganean jorratutako kantu haietan zizelkatuta badu ere. Kantariak bidaiatzeko eta bestelako herri eta bizipenetan murgiltzeko duten aukeraz baliatuta, kolore eta usain mota asko dituen *Hiri hartan izan zen* lana prestatu du. Alboan Pello Ramirez, Arkaitz Miner, Iñaki Salvador, Jean Phocas bezalako musikari handiak izan ditu eta horiek Markezek

musikatutako istorio-pasarte biluziei giro egokia gehitu diete. Folka —tradicionala zein aurrerakoiagoa—, countrya, tangoa, flamenkoa eta Balkaneetako tantak... Hemengo eta kanpoko poeta esanguratsuen testuak bere eginenez eta kantu propio sinesgarriez baliatuta, malenkonia, unibertsaltasuna, maitasuna, erbestea eta bestelakoak ekarri dizkigu barrenera.

www.mikelmarkez.com

Mikel Markez

«Askotan inportanteagoa da zer sartu behar duzun baino, zer kendu behar duzun antzematea»

«Lortzea asko kosta izanak egiten ditu gauzak berezi», galbidean dagoen balorea.

Gaur egun haurrek gauzak ia desiratu baino lehen esku- ra dituzte eta hori oso pedagogia txarra da. Baiezkoak entzutera ohitzen baduzu, ez da prestatuko bizitzako ezezkoetara.

Euskal Herriko musikari onenarikoak alboan izan arren, instrumentalki disko biluzia egin duzu.

Sortzean bi elementurekin abiatzen naiz, gitarrarekin eta ahotsarekin. Horrela ongi funtzionatzen badute ongi, bestela malo! Askotan inportanteagoa da zer sartu behar duzun baino, zer kendu behar duzun antzematea. Eta musikari bikainak inguruan badituzu, haien atzean ezkatatzeko tentazioa izan dezakezu.

Berdin biluztu daitezke kantuetako hitzak zureak ez direnean? Zure eginen dituzu?



ANDER GILLENEA

Jakina. Kantu bat egiteko poema bat aukeratzen duzunean, poema horrek esaten duenarekin bat egiten duzula adierazten ari zara. Gainera, kantatzen dugunarekin kontsekuentzia izatea beste erremediorik ez dugu. Gure ofizioan zintzotasuna ezinbestekoa da.

«...Hirugarren egunean erretiratzeko» beharrean, Markezek jakin du garai eta publiko desberdinei aurre egiten, ezta?

Orain dela urte batzuk ez nekien oso ongi norentzat, zergatik edo zertarako ari nintzen. Kantuek erakartzen eta uxatzen dute jendea. Oso istorio politak kontatu dizkidate nire kantuei buruz. Zorionez, 25 urte gutxiago dituztenek telefonoetan nire kantu batzuk dituzte. Eta Marti-korenarekin kantatzen dudanean nik baino 25 urte gehiago dituztenek zoriontzen naute.

Zure hitzak dituen kantua egin zait eraginkorragoa. Kasualitatea ote?

Kuriosoa da, baina nire kantu eza-gunenak neronen hitzekin egindakoak dira. Azkenaldian nik idatzitako testuekin lanean ari naiz, eta oso posible da datorren diskoa osoki nik egindako hitzekin eta musikekin osatzea. Eta kasu horretan gitarrak bat eta ahots bat nahikoa izango dira. ■



Ezpalak

JON TORNER

80 kontzertuk irekiko dute Donostiako 'Olatu talka'



HILAREN 11N, 12an eta 13an egingo da Olatu Talka ekimenaren hirugarren edizioa, Donostiak 2016ko kultur hiri-buruaren izendape-na ofizialki jasoko

duen egunaren bueltan. Egitaraua Ostiralive egitasmoak irekiko du: doako 80 kontzertu eskainiko dituzte talde amateurrek Donostian eta inguruko herrietan. Emanaldietako batzuk ohiko aretoetan izango dira, baina beste asko leku bereziagoetan: tren geltokietan, dendetan, kontzertuetarako lizentziarik ez duten tabernetan eta abar. Arantzan, Errenterian, Hernanin, Hondarribian, Irunen, Lasarte-Orian, Lezon, Trintxerpen, Pasaian, Orion, Usurbilen eta Zarautzen ere emango dituzte kontzertuak.

Leintz Gatzagan eta Eskoriatzan egingo da Mundumira

MUNDUMIRA jaialdiaren 8. edizioa Leintz Gatzagan eta Eskoriatzan (Gipuzkoa) egingo da maiatzaren 18an, 19an eta 20an. Musika, gastronomia, natura eta kale animazioa uztartzen dituen egitarauak 50 bat ekitaldi jasoko ditu. Esne Beltza, Bizardunak, Gafieira Miuda brasildarra eta Richard Buckner estatubatuarra dira jaialdian ariko diren musikari batzuk. Egitarau osoa: www.mundumirafesta.com.

Andres Orozco-Estrada

kolonbiarrak Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren (EOS) denboraldi berria amaitzean utziko du zuzendari kargua, "arrazoi pertsonal eta profesionalek" bultzatuta. 2013ko ekainaren 17an amaituko da EOSen denboraldia, Bilbon, Malandain Ballet Biarritzekin batera eskainiko duen *Errauskine* obrarekin. Datorren irailaren 28an hasiko da denboraldia, eta orotara hamabost emanaldi jasoko ditu. Informazio gehiagorako: www.euskadikoorkestra.es.



LAVERDI.ORG

1512-2012 Nafarroa Bizirik plataformak bi arte erakusketa sortu ditu. Batetik, www.arte1512.org webgunean erakusketa birtuala paratu du, Nestor Basterretxea, Xabi Otero, Zoe Bray, Angela Moreno, Juan Gorriti eta beste 20 artistaren obrekin. Bilduma eguneratuz joango da urte osoan, eta sustatzaileek adierazi dute egistamoa zabalik dagoela parte hartu nahi duten artista guztientzat. Bestetik, Nafarroaren konkista ardatz duten 50 bat egileren artelanak erakutsiko dituzte herriz herri, tartean Gernikako museoan eta Donostiako San Telmo museoan. Egitasmo bikoitz honen oinarrian Nestor Basterretxearen *Neguaeren ostein...* *ernatu da zuhaitza* izeneko grabatu sorta dago. Haiek izango ditu Nafarroa Bizirik plataformak finantza-iturri nagusi: 300 kopia jarriko ditu salgai, 300 euroren truke. Bestalde, udazkenean, kultur jaialdi bat antolatu nahi dute.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argaia.com/harpidetza_haria.php

IBERNALO
landetxea - jatetxea

Gozatu naturaz: hipika, arrantza, golfa, eskalada, amildegia...

01110 Kanpezu (Araba) - ☎ 945 102 271 / 647 911 484 - www.ibernalorural.com

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

‘Lehoi Erregea’, diktaduraren apologia

The Lion King. Zuz.: R. Allers, R. Minkoff. AEB, 1994.

INDARREZ EZARRITAKO ordenak betiko berdin jarraitzea, klase zapalduak are gehiago zapaltzea, emakumeen azpiratzea... Ez neukan buruan horrelako konturik 10 urterekin *The Lion King* ikusi nuenean eta horregatik, inori kalterik egiten ez dion fikzioztat neukan. Berriz ikusi, eta konturatu nintzen gizarte antolamenduari buruzko mezu eskuindarra, ia faxista eskaintzen duela.

Mufasa oihaneko diktadorea da, sistema aristokratiko baten buru, eta semeari –Sinba, protagonista– erakusten dio zein diren menpean dituen lurraldeen mugak, herentzian jasoko dituelako bera hiltzen denean. Tiranoa, noski, oso modu atseginean irudikatua dago. Kontrako aldean Scar, Mufasaren anaia, aristokraziako kidea izan arren animalien erreinuko proletarioen laguna –tipo ilun eta itsusi

irudikatu dute–. Hienekin tratua daukan lehoi bakarra da eta haiekin elkartuko da estatu-kolpea prestatzeko: Mufasa hilko du, Sinba erbesteratzera behartuko, eta oihana sistema sozialista bihurtzen saiatuko da. Scarrek kolektibizazioa martxan jartzean lehoi emeen emantzipazioa ere etorriko da; ordura arte zeukaten lana –chiza neketsu eta arriskutsua– alde batera utziko dute.

Azkenean ordea, diktadura gailenduko da berriz. Filmaren bukaerako eszenak erakusten digu boterea dutenen seme-alabek agintea herentzian hartzea “bizitzaren zirkulua” dela. 2011n pelikularen bertsio berria estreinatu zuten zinema aretoetan, 3Dra egokitua. Faxismoa fronte guztietan borrokatu behar dela uste baldin baduzu, haxe nire gomen-dioa: ez eraman umeak horrelako gauzarik ikustera. Pottokiak, euren balore kolektibista sanoekin, askoz aukera hobea dira. ■



Kalean da maiatzeko



aizu!

- Txirri, Mirri eta Txiribitonek 40 urte
- Groenlandia, izotzaren latza
- Gasa arazo Araban
- Maiatzaren Biko azoka
- Juan Luis Landa arin-arin
- Kantu taldeez kontu-kontari

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) 29 €

aizunet.org

ANA ZAMBRANO

Kike Amonarrizen umorea

A black silhouette of a person standing with their hands in their pockets. Above their head are three question marks of varying sizes, suggesting a state of confusion or a question about the content.

hitzik esan gabe pasa
ondoren halaxe galdetu
dio aldamenean duen
lagunak:

- ## Soluzioa

	O	F					H	L	B
A	K	A	R	O			M	I	S
E	D	E	N				G	A	N
K	R	I	S	I	O		H	A	G
K	K	L	A	R	U	A	I	U	K
B	A	X	U	M	O	D	A	K	R
		I	R	M	O	A	R	R	N
U	K	R	A	I	N	A	R	B	I
O	R		M	A	L	A	T	U	M
I	Ñ	I	G	O	A	K	E	I	T
A	P	U	S	T	U		N	O	N
K	A	P	A	T	I	A	K	T	A

Lurraldeak

Zonaldeak

Gomendioak

Jarri zure
bannerra

Gehitu
herri bat

Proposatu
zerbait

Euskal Herrian ihesi

Osa dezagun guztion artean geure gida sarean

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen?
Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarrek bertara joateko
egun berezirik gomendatzen al dute?

Hurbil diezaiogun elkarri Euskal Herria



Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa

Herrietako informazio praktikoa, mapak, bideoak, ARGIAko Ihesi
erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zeure proposamenak egiteko
lekua, zure iragarkia 0,50 €-tik aurrera...

ihesi.com



argia
proiektua

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Zalantza asko Txernobyleko sarkofago berriaren lanak hastekotan direla



1986KO APIRILAREN 26AN lehertu zen Txernobyleko zentral nuklearreko laugarren erreaktorea. Hondakin erradiaktiboak mundu osora barreiatu ziren eta sei hilabete behar izan zituzten erreaktorea sarkofago batez inguratzeko. Sarkofago horren bizia 25 urtekoa izango zela estimatu zen, baina 2010ean Ukrainiako Gobernuak iragarri zuen ez zuela nahiko dirurik lan horri ekiteko.

Altzairu eta porlanezko sarkofagoaren eraikuntzan parte hartu zuten langile gehienak hilik edo minbiziak jota daudela jakina da, baina gobernuak inoiz ez ditu datu zehatzak eman; ez ziren gutxi batzuk izan, milaka

baizik. Iazko apirilean, *Txernobyl bizirik!* artikuluan, bigarren sarkofagoa egiteko 1.000 milioi euro behar izango zirela adierazi genuen, eta artean 500 milioi baino ez zirela bilduak izan.

Ukrainako Gobernuak adierazi berri du lanak laster hasiko dituela, baina datu gehiagorik ez du eman. Nahikoa diru bildu ote da? Lanak bermez egingo dira edo espero zena baino porlan eta altzairu gutxiago erabiliko dute? Langileen lan eta osasun baldintzak nolakoak izango dira?



Asteroideen aurka, satellite laser jaurtitzailak

ORAIN 100 URTE INGURU, Tunguska izeneko eskualdean, Siberian, 2.000 kilometro koadroko eremua txikituta geratu zen, espaziotik eroritako asteroide baten jota. 30 eta 50 metro arteko diametroko harria atmosferan sartzean lehertu zen, baina haren zatiek eragin zuten txikizioa.

Gertaera hori ez da arrunta, baina zientzialarientzat aspaldiko kezka da asteroideak nolabait geldiaraztea. Berriki, Eskoziako Strathclyde Unibertsitateko ingeniari talde batek laser sistema bat asmatu du. Satellite multzo batek igorriko lizkioke laser izpiak asteroideari, hura desbideratzeko helburuz; asteroidearen tamainaren arabera, satellite gehiago edo gutxiago erabili beharko lirateke. Laserren energi iturria eguzkia litzateke.



Pentsamenduak gidatutako robota

Suitzar zientzialari talde batek frogatu duenez, elbarritasuna duen pertsona batek robot baten mugimenduak gida ditzake hatz bat ere higitu gabe. Horretarako buruan elektrodoz jositako kapela erabiltzen da, baina guztia ez da perfektua... <http://ttiki.com/37528> (Gaztelaniaz)

Zarataren eragina landaredian

Gure hirietan, lantegietan eta errepideetan sortzen dugun zaratak animalien ekosistema aldatzen duela jakina da. Ipar Karolinako (AEB) Sintesi Ebolutiborako Zentro Nazionalako Clinton Francis ikerlariaren arabera, landareetan ere nabariak dira aldaketak. <http://ttiki.com/37529> (Gaztelaniaz)

Hizkuntza bakoitzak lan-karga desberdina sortzen dio garunari

Pertsona baten jatorrizko hizkuntza arabiarra baldin bada, lan gehiago egin behar du bere garunak hizkuntza hori hebreera edota ingelesa izango balitz baino. Kasu guztietan garuneko bi hemisferioek lan egiten dute, baina kasu batzuetan independenteki lan egiten dute, eta besteetan menpekotasuna izaten da. <http://ttiki.com/37530> (Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Kinina

LANDAREEKIN EGINDAKO alkoholdun edarien bolada hemen da. Neure inguruan behintzat puri-purian, ur gaineko bitsetan dabilta. Esentzia artifizialekin egindako sagar-, udare-, mertxika-likore eta antzekoak, batetik. Eta naturalak bestetik. Azken horien artean erregina gina. Hobe esanda, gin tonica. Koktel horren historiaz edo tonika xeblebre-baten gorabeherarik edo honako edo halako ginebra-ren bitxikeriarik ez baldin badakizu mozoloaren pare azalduko zara koadrilan. Ez dakit zer gaitzi aurre egiteko gin tonica ingelesek asmatu zutela entzuteaz asper-asper eginda nago; egia den ala ez berdin du. Boladakoak gogaitzen nau. Zahardadea ote?

Bermutak bezala tonikak kinina du, zuhaitz baten azaletik sortzen den alkaloide indartsua. Kininak osasungarri egiten ditu bi edariak, tamainan, noski.

Kinina zuhaitza *Cinchona* generokoa da. Izen horrek ere historia xelebrea du. 1638an Perun Espainiako erregeordea zen Don Luis Gerónimo Fernández de Cabrera de Bobadilla Cerda y Mendozaren emaztea, helgaitzak edo malariak jota zena kinina zuhaitzaren aza-

lak sendatu omen zuen. Agintariaren lehen edo bigarren emaztea ote zen, espainiar historialariak ez dira ados... Guri bost! Kanpoko historialariek, ordea, argi dute: ez zen horrela gertatu. Erregeordearen menpeko gudari eta soldadu-jesuitek, indigenek zuhaitz honen azala sendagai gisa erabiltzen

zutenaren berri bazuten, agidan. Baina errege ustekoa erregeurde. Eta urdea Chinchongo laugarren kondea izan. 1748an Linneok landareen lehen izendegia osatu zuenean "chinchona" jarri nahi izan zion izena, baina italieraren ahoskera hartu zuenez "cinchona" deitu zuen. Gaur ere halaxe du izena kinina zuhaitza eta bere senideen genero horrek, *Cinchona*. Hala ere, euskal hiztegi gehienek "chinchona" deitzen dute. Hemen dugun erregeurdeak ere lana ongi egiten duenaren adierazle.

Hara, hemen tonikaren kininaren historia bat. Ingelesek baino dezente lehenago erabiltzen zuten jesuitek eta Ameriketako indigenek. Hurrengo gin tonica hartzen dudanean haren gaineko kontu eta komeria gehiago idatziko dizkizut, zeuk hartzen duzuan ahoa neurri hitz egiten duen horietakoren bat lotsagarri utz dezazun...



Kininaren zuhaitza.



Lilak gora-behera

Syringa vulgaris, lilak udaberriaren bihotzaren muina dotoretzen du. Usain txoragarria zabaltzen du eta lore-kolore biziak hotza uxatzen. Hostoz janzten denean azken ila-

rrak erein eta letxuga eta epelzale diren tankerako barazkiak

aldatu behar dira. Loraldia ximeltzen denean kuiak eta era guztietako kurkubi eta kalabazak erieteko sasoia da. Baratzezainaren egutegian lilak aldean behar du, bistara. Euskaldunok amañi-lilia deitzen diogu lilaren liliari. Ezin etxekoagoa izan...



☎ 605 727 429
info@ericajardineria.com
www.ericajardineria.com

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Bedlam, eroen ikuskizuna

LONDRES, 1814. Bethlem Royal Hospital izeneko erietxe psikiatrikoak 96.000 bisitari izan zituen urte osoan. Baina milaka horiek ez ziren gaixoen egoeraz kezkatutako senitarteko edo lagunak, Bedlamera –izen horrez ezagunagoa da– eroez iseka egitera hurbildutako ikusnahiak baizik.

Penny bakar baten truke –hileko lehen astearteetan sarrera doan zen–, bisitariak giza miseriez nahi adina gozatzeko aukera zuen. Eta eguneko ikuskizunak bertaratutako itxaropenak betetzen ez bazituen, bisitariei makilak eramaten eta gaixoak akuilatzen uzten zieten, ikuskariaren maila igotzeko. Gaixoei alkohola emateko baimena ere bazuten, mozkorturik nola jokatzaren zuten ikusteko.

Bedlam 1247an sortu zen. Bethleemeko Izarraren ordenaren komentu izan zen lehenik. 1337an ospitale bihurtu zen, eta hogeitaz geroago hasi zen buruko eritasunak zituzeen gaixoak hartzen. Berehala gaixo psikiatrikoak bakarrik onartzen hasi zen eta, hala, historiako lehen erietxe psikiatriko izateko ohorea du gaur egun oraindik martxan dagoen zentroak. Erietxeko metodoak, ordea, ez ziren batere ohoragarriak. Ohikoa zen, esaterako, gaixoak girgiluz zorura edo hormetara lotuta egotea. 1700ean eriei erri (*patient*) deitzen hasi ziren, baina horrek ez du esan



WILLIAM HOGARTH

A Rake's Progress (1735) lanean, William Hogarthek Bedlameko egoeraren erretratu gordina egin zuen.

nahi gaixoak behar bezala tratatzen hasi zirenik. Hain zuzen ere, garai horretan hasi zirelako publikoari ateak zabaltzen eta Bedlam atrakzio turistiko bihurtzen. Eritasun psikiatrikoak ahultasun moralarekin lotu ohi zituen garaiko mentalitateak. Hala, gizarteak ez zuen haiek zaintzeko edo sendatzeko erantzukizunik.

96.000ko marka lortu eta hurrengo urtean, Bedlamek egoitza aldatu zuen. Eraikin berriko leihoei ez zieten kristalik jarri, “eroetxeen ohiko kiratsa saihesteko”. 1916ko

ekainean, gaixoentzako negu gordinenaren ostean, Thomas Monro erietxeko arduradun nagusiak kargua utzi behar izan zuen, jokabide eta tratamendu gizagabeak medio. Ordurako, Philippe Pinel (1745-1826) –askorentzat psikiatria modernoaren aita– gizarteak buruko eritasunekiko zuen jarrera aldatzen hasia zen Frantzian, eta eragina Mantxako kanaliz bestaldean ere nabaritzen hasi zen.

Azken mendean, Bethlem Royal Hospital munduko erietxe puntakoenetako izan da ikerketa psikiatrikoan eta tratamendu berritzaileetan. Baina herri hizkeran oroimen zaharragoek pisu handia dute; *bedlam* hitzak “nahasmendua, iskanbila” esan nahi duela dio hiztegiak.



Arrastoak

Krokodiloek museo berria izango dute Egipton



ASSUAN HIRIAN krokodiloek buruzko museo zabalduko dute datorren urtarilean. Krokodiloak animalia miretsiak izan ziren antzinako Egipton. Lehen dinastiek Sobek jainko-krokodiloa gurtzen zuten, eta espezie horretako hainbat ale momifikatu zituzten.

Orain, 40 momia bildu eta museoan erakutsiko dituzte. Txikiena 1,5 metro luze da; handienek, berriz, bost metroak gainditzen dituzte. Niloko narrasti erraldoiei omen egin eta, bide batez, turismoa sustatzeko ahaleginekin bat egiten du ekimenak.

Mikel Ansotegi
Erraldeko lehendakaria

«Durangoko hiltegia ixtea kolpe handia da Bizkaiko lehen sektorearentzat»

Aulestin jaio zen 1981ean, eta bertako alkatea da ekainetik. Erralde sozietate mugatuaren administrazio kontseiluko lehendakari kargua ere hartu zuen, alkatetzarekin batera.

Durangoko hiltegia kudeatzen du Erraldek, baina urtariletik itxita daukate, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak aginduta. Itxieraren aurrekarietaz eta ondorioez berba egin dugu, baita Berrizen zabaldu behar den hiltegi berriaren proiektuaz ere.

UNAI BREA

ASPALDI HASITAKO historia da Erralderena, enpresa bera 2006an sortu bazen ere. Urtebete lehenago itxi zen Durangoko hiltegia, 48 udalek osatutako mankomunitatearen esku zegoena, ia Bizkaiko erdiak. Erralde, berriz, hamahiru

udalek sortu zuten –hamabost dira gaur egun–; hiltegia osterazabaldu eta Berrizen beste bat egiteko proiektua gauzatu zuten, Durangokoa zaharkituta zegoela eta. Urtarrilean, ordea, itxi behar izan zuten, hala agindu baitzien Jaurlari-

tzako Osasun sailak, Europar Batasuneko legedia betetzen ez zutela argudiatuta. Arautegiari egokitzeko egindako hobekuntzek ez diete balio izan egoera horri buelta emateko. Apirilaren 18an egindako bileran, Osasun Sailak itxiera agin-



INIGO AZKONA



Langile bat Erralden. Urtarriletik itxita dago Durangoko hiltegi zaharra.

dua bere horretan mantentzen zuela jakinarazi zien Erraldeko ordezkariak. Lehentasuna, orain, Berrizkoa alait arinen eraikitzea dute, baina hor ere atzeratuta dabilta. Atzerapen horren erruduna ere Jaurlaritza dela salatu du Erralde, denbora luzeegia pasa delako baimena eman dieten arte. Kontuak kontu, hiltegirik gabe dago Bizkaia unean.

Garbi daukaze Durangoko hiltegia ezin izango dela berriro ireki.

Bai. Urtarrilean Osasun Sailarekin berbetan egon ginen. Esan zuten egokiak iruditzen zitzaizkiela egin behar genituen hobekuntzak, baina apirilaren 18an egindako batzarrean ez genuen lortu hobekuntza horiek ikustera ere etortzerik. Esan zuten ia ezinezkoa izango zela hiltegia berriro zabaltzea. Oso itxaropen gutxi daukagu, esan daiteke behinbetiko itxita dagoela.

Zer arrazoi eman zizueten erabaki hori hartzeko?

Irizpide teknikoak dira. Guk egin ditugu hobekuntzak, eta proposatu dugu lan egiteko modu berria. Esan zuten hiltegiaren lan egiteko modua arriskutsua zela, gurutzapenezko kutsatzea gerta zitekeelako. Guk hori saihesteko metodoak ipini ditugu, baina eurek, ikusi barik, esan dute hori ez dela nahikoa. Ikusten dugu esperantzak faltsuak zirela, eman ziguten hitza ez dutela bete. Hortik abiatuta, Durangoko hiltegia zabaltzea berriz praktikan ezinezkoa izango da. Beraz, proiektu berriari eskaini beharko diogu indarra.

Arazo handiena hiltegiaren beraren forma omen da.

Bai. Suposatzen da, lehen beharra egiteko zegoen sistemarekin, beharginak mugitu egiten zirela gunebatuetatik beste batzuetara. Eta hori legediaren arabera ez da egin behar. Horrek sortzen ei du gurutzapenezko kutsatze arriskua. Guk proposatu genuen modu berrian lan egitea, behargin horiek gurutza-

tu barik eta kutsadura hori ekidinez. Baina ez digute eman aukerarik saiatzeko ere.

Esan duzue Jaurlaritzako sailen artean koordinaziorik ez dagoela. Nekazaritzak dio Erralderena proiektu estrategikoa dela, baina Osasunak bestelako jokabidea dauka.

Hala da. Iazko uztailean bilera eduki genuen Nekazaritza Sailarekin, eta esaten zuten Erralde izango dela Bizkaiko hiltegi bakarra, eta eurek ipini zioten estrategiko etiketa. Baina Osasun Sailak, antza, ez du ikusten behar hori, orain Bizkaian hiltegirik ez dago eta. Eurek hartutako erabaki batengatik gertatu da hori, baina ez dute ipini alternatibarik. Nondik bueltatuko zaie abeltzainei bidaietan galtzen ari diren dirua? Zerbitzu bat kendu dute, eta irtenbiderik bilatu ez. Kontuan hartu behar da abeltzainei orain diru eta denbora gehiago kostatzen zaiela ganadua hiltzera eramatea.

Nora joaten dira orain?

Gipuzkoara, Oñatikora edo Urkai-kora, Zestoan. Baita Laudiokora ere, baina hori nahiko txikia da. Garraioan gastu gehiago egin behar dute, eta hori oso kaltegarria izan daiteke aurretik ere oso estu zebilen sektore batentzat. Batzuek diote ez diela merezi. Kolpe handia da lehen sektorearentzat Bizkaian.

Eta abeltzainek eurek, zer diote?

Gure moduan egon dira, zabaltzeko esperantzarekin. Kontuan hartu Durangoko hiltegia lehen aldiz itxi zenean, 2006an, 1.017 esplotazio galdu zirela. Gehienak txikiak ziren,



Dive Tarpoen urpekaritza




Kirol portua, A7 lokala
48992 GETXO (Bizkaia)
Tel / Faxe: 94 4912577
divetarpoen@euskalnet.net
www.divetarpoen.com

4-8 lagun bitartekoak. Horrek esan nahi du abeltzaintza eredu oso jasangarri batek kalte handia izan duela. Erraldek 3.000 abeltzaini eman izan die zerbitzua, horrek esan nahi du 3.000 familiak sostengu hori eduki dutela, eta horietatik batzuk horretan besterik ez dute jarduten. Orain ikusten dute soldat tak bajatuko zaizkiela. Astean 100 euro gehiago gastatu behar dituzte garraioan.

Bizkaia osoko familiak dira?

Hildako abereen %90 inguru Bizkaikoak izan dira. Probintzia osokoak. Eta ez da bakarrik ganadua nondik datorren. Hiltzen denaren %95 Bizkaiko harategietan saltzen da. Azken batean, bertoko okela da, berton kontsumitutakoa, eredu jasangarria da. Elikadura-subirano-tasunari bultzada ematea da.

Jaurlaritzak sustatutako Zorrotzako (Bilbo) hiltegia ere egon da zabalik orain urte gutxira arte. Oso eredu desberdinak izan dira Erralderena eta harena.

Erraldek lehenengo sektorearen interesen arabera jokatu du. Ez dabil irabazien bila. Eta funtzionatzeko modua desberdina da. Bildotsaren kasuan, adibidez, abeltzainekin eurekin negoziatu zen zer preziotan atera. Beste leku batzuetatik ekarritako bildotsaren bi halako pagatzen zuen Erraldek. Baserritarrentzat interesgarriagoa da Erralderen eredu. Gero kontsumitzaileak gehiago pagatu behar du, baina jakinda kalitatezkoa dela. Abeltzainak bakarrik ez, kontsumitzaile asko ere eredu horren alde daude.

Hiltegia itxita egon zen aurreko aldi 1.017 esplotazio desagertu zirela diozu. Zer ondorio ekar dezake oraingo itxierak, jakinda Berrizkoa funtzionatzen hasteko urte bi inguru igaroko direla?

Ez dakit, ez dugu kalkulurik egin. Esan behar da, bestalde, 1.017 haiek galtzeaz aparte, lehen pasatzen zen beste gauzetako bat zela jendeak, txahalak jaiotzen zitzaizkienean, hazi beharrean gizendegiei saltzen zizkietela. Gizendegietan hazten den moduan hazten da ganadua, eta okela hori gero gugana dator bueltan. Ez dugu uste guk kontsumitu nahi dugun okela hori denik. Zerbitzua berreskuratu behar da sektoreak kolpe handiegia hartu baino lehenago. Sektoreak lehen ere jakin du lehen hartutako kolpetik gutxika erreku peratzen, baina orain gauzak dauden moduan ez dakigu zer pasatuko den.

Zuen helburuetako bat Erralde handitzea da, udal gehiago sartzea.

Ez da Erralde bera handitzea, ez nuke hori esango. Proiektua aurrera ateratzea da gakoa, Erralde moduan edo beste modu batean. Inportantea da zerbitzu hori emango duen azpiegitura edukitzea. Horretarako beharrezkoa da administrazio publikoen parte hartzea. Orain



"Erralderena bertoko okela da, berton kontsumitutakoa. Elikadura-subirano-tasunari bultzada ematea da".

hamabost udalok daukagu erantzukizuna, hamabostok bakarrik egon gara sektoreari zerbitzu ematen. Eta udal txikiak gara, ertainen bat, handi-handirik ez dago. Horregatik behin eta berriro egiten diegu deia administrazio guztiei, hasi Jaurlaritzatik eta azken udalera arte. Administrazioari dagokio zerbitzu hori ematea, eta hamabost udal gutxi dira.

Krisia ere hor dago.

Bai, baina lehenetsunak zeintzuk diren ikusi behar da. Elikadura, bertoko produktuak kontsumitzeko aukera, oinarritzkoa da. Denok batzen bagara ez da sekulako ahalegina izango. Krisian egon arren beste zerbitzu batzuk ez dira ezbaian jartzen, eta hau ere ezin da ezbaian jarri. ■



**RUPER ORDORIKAREN
KANTALDIA
MAIATZAK 12, 22:00 TAN
USURBILGO OIARDO KIROLDEGIAN**

Antolatzailea: Jexux Artze Kultur Elkartea
Sarrerak: Lizardi eta Oiardo kiroldegia (Usurbil)
Telekuxa: 943001200 / www.kutxa.net
Prezioa: 10 € alde z aurretik, 12 € egun berean.

Babeslea:



Usurbilgo Udala

Frantziako presidentetzarako bozak

Hollande presidente: itxaropenak izua garaitu du

Bozemaileen %81,60k bozkatu du. %51,50k Hollanderen alde (PS), %48,50k Sarkozyren alde (UMP). 46 milioietatik 36k eman du boza. François Hollande da Frantziako Errepublikako VII. presidentea, 1.100.000 bozen aldean. Ozta-ozta, baina amaitu da Nicolas Sarkozyren aroa.

MIKEL ASURMENDI

BOZEN ESTIMAZIOEK DOI-DOI ematen zioten garaipena Hollanderi arratsko 20:00etan: bi puntu eskasen alde. Ezkerreko militanteek Parisko Bastilla plaza hartua zuten ordurako. Hedabideek presidente berria ziurtzat jo zuten. “Behartsuen” esperantzak eta teknologia berriak aro berria bermatzen zuten antza.

Artean, lehen orduan, PSko Ségolène Royal eta Manuel Vallsek, Hollanderen kontseilari bereziak, honelako hitzak zerabiltzan: Errepublikara adiskidetuaren agerbideak izan dira hauteskundeok. Frantziaren kontzepzio berriaren lekuko. Europaren norabiderako aldaketaren lehen urratsa... Sarkozyren eta UMPren porrotaren neurria hartzen zuten haren ondokoek. Jean-Pierre Raffarin Lehen Ministro ohiak, UDFko zentrista, hauteskun-

deetan UMPren baitako aniztasuna eskastzat jo zuen. Sarkozyren lana gutxietsi gabe ere, zeharka goraipatuz nolabait, haren nagusitasuna “nagusikeria” ez ote zen bilakatu ulertu genuen zenbaitek. UMPko idazkari nagusia Jean-François Copék berriz, Sarkozyren porrotaren tamaina apaltzeaz batera, krisi ekonomikoaren testuinguruan egingdako bere lana goraipatu zuen. Hollandek duela hiru hilabete ateratzen zion bozen alde gogoratu zuen, baita Sarkozyk agertu indarra goetsi ere. Alta, batez ere, eskuineko kideek ekainean izanen diren Legebiltzarrerako hauteskundeak (Asanblea Nazionalaren osaketa) hartu zuten hizpide, diputatu eta senatari berrien hautaketa. Eskuineko ordezkariak hirugarren itzuliko hauteskundetzat jo zuten ekainekoa. Euren aburuz, aniztasunaren

beharrez eta oreka ezarri aldera, egokia litzateke eskuinaren garaipena. Horra premisa edo “abisua”.

Presidente ohiaren lehen diskurtsoa heldu zen segidan. Parisko La Mutualité egoitzan mintzatu zen Sarkozy. Arro agertu zen, eta are arroagoak bere jarraitzaileak. Harrezkero ez zuen beldurra sorrazten ordea, ohorea eta “aberria” hitzak gailendu ziren bere diskurtsoan. *La Grandeur de la France*, besteak beste. Ez zuen guztiz argitu alabaina, politikagintza utziko duen edo ez.

Askos beranduago iritsi zen François Hollande presidente berriaren diskurtsoa. Corrézeko Departamenduko Tulle hiriburutik, bertako kontseilari nagusia baita, baita Tulleko auzapeza izana ere. Jarduneko presidente Sarkozy Parisen zegoen, presidente ohia jada,

ESKOLATXIKIEN FESTAK 25 URTE



Ekainak 3, Larraulen

Puzgarriak - Pirritx eta Porrotx - Zezenak eta Pottokak -
Kupela taldea -tailerrak - Eskola Txikien dokumentala -
erakusketa ... *zatozte ospatzera !!!*

eta presidente berria bere hurbilekoen artean.

Hollandek Frantziaren kontzepzio berrian frantses hiritarren aniztasuna sartu zuen, errepublikako balore galduen berreskuratzea. “Aberria” hitza saihestu zuen “herritartasuna” hitzaren aldean. Errepublikarren artean, ezkerreko indarrak, ekologistak, baita “humanistak” gogoratu zituen, gogoratu ez ezik, eskertu ere. François Bayrou zentristarekiko keinu gisa ulertu genuen. Hollandek, besteak beste, laizismoa aipatu zuen. Eskola publikoaren baloreak irakaskuntzan. Frantzian galdutako ezaugarri gisa ulertu genuen. Konfiantza eskatu zien frantziar guztiei. Estatu laikoa gogoan genuela, Marine Le Pen agertu zen eszenatokian. Sarkozyren porrota azpimarratu zuen, baita Europarena ere. Frantziako baloreak eta nortasun ezaugarriak bestelakoak dira haren ahotan. *Frontières* delakoak toki hartu zuen bere diskurtsoan. Horiek horrela, guztia-ekin ere, une batez esperantzak beldurra garaitu ote zuen antzeman genuen.

Hollande VII. presidentea

Charles de Gaullen aroarekin zabaldu zen Frantziako V. Errepublika, Hollande zazpigarren presidentea izaki. François Mitterranden ostean, ezkerreko bigarrena. Europako eta munduko krisi ekonomikoak erraztu bide du presidentea-



François Hollandek konfiantza eskatu die herritarrei, presidente aukeratua izan bezain pronto.

ren kargurako bidea. Industriaren berrantolaketa, zergen politika berria, energia iturri berrien aldeko apostua... Hamaika dira ezkerrearen ikuspuntutik –baita nahikaria eta beharretatik– landu eta eraldatu beharko dituen arloak eta gaiak. Ekonomia izan da hauteskondeetan hautagaien ahotan entzundako hitz nagusia. Hasia da presidente berria bidaiatzen. Lehen geltokia Berlingen dauka, *Merkozy* epitetoa hausteko asmoz. *Merhollande* bihurtuko ez balitz, gaitzerdi. Handik AEBetara joanen da. Artean, G8 delakoaren batzarrean kontuak

azalduko beharko ditu. Badu zereginik. Dagoeneko munduko burtsen dardarizoa areagotzen hasi(ko) dira. “Austeritatea ez da fatalitatea” aldarrikatu du presidente berriak. Ikasgai ederra. Kontsumoa oinarri duen sistema ekonomikoan ederregia, naski.


Euskal Herria aiduru betiere

Hollande hasi da munduan barrena bidaiatzen, ordea, Ipar Euskal Herrira ez da arribatu, ezta kanpainan ere. Sarkozyk euskal presoek hurbilketa desiragarria zela esan zuen Baionan. Hollandek ez du gutxiago nahiko, naski, desiratzea gauza bat da, gauzatzea besterik alta. Presidente berriak oso promesa gutxi egin du Euskal Herriaren auziari buruz. Baiteste Mitterrandek agindu bai, baina sekula bete ez zituenekin gogoratu izana.

Akaso gogoratzen da, baina promesa egin baino, nahiago du betetzea. Agian. Hots, denbora berebiziko aldagaia da politikan, politikan ere. Hollandek bost urteko agintaldia dauka aurrean. Bi urte iragan orduko, Frantzia berria ez ezik, Europa diferentea antzeman ezean, malo. Edo bestela azalduta, esperantzari lehio bat ireki eta beldurrari aitzia egin aldera, Euskal Herriaren auziak bi urteko joan-etorrian neurtuko du ere aldaketaren tamaina, hots, *Le changement* delakoa. ■



Urola Kostan
ondo
egitera goaz



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Konposta auzolanean

65 familia lorategi publikoan hondakinak ongarri bihurtzen

Usurbilen 2011ko azaroan ekin zioten konposta auzolanean sortzeari. 65 familiak eurak sortutako hondakinak eurak kudeatzeko aukera dute gaur egun. Nork bere etxebizitzan konposta egin ezin duten bizilagunei irtenbidea eskaini die Usurbilgo Udalak.

IRATI SARASUA ARABOLAZA

Argazkiak: Dani Blanco

1,6 KILO HONDAKIN sortzen du egunero pertsona bakoitzak gutxi gora-behera, horren %40 hondakin organikoa izaten da, hau da, konposta sortzeko birzikla daitekeen hondakina, duela gutxi arte txerri-jana esaten zitzaiona. Hondakinen gaikako bilketa orokortua daukaten herrietan, atez atekoa egiten dutenean, orain arte ohikoena etxebizitza bakoitzean egiten zen auto-konposta izan da. Baina hori lorategia edo lur-saila duten familientzako aukera da soilik. Badago ordea horrelakorik ez duenarentzako alternatiba bat, Iruñeko eta Flandriako mankomunitateen esperientzia oinarritzat hartuta, auzo-konposta jarri du martxan Usurbilgo Udalak. Hondakin organikoak ahalik eta gertuen tratatzeko baliabideak jartzea da helburua, merkeagoa, ekologikoagoa eta osasuntsuagoa delako. Aspalditik hainbat herritarrek, baratze edo lorategirik eduki ez arren, autokonposta egiteko borondatea adierazia zioten Usurbilgo Udalarari, eta, besteak beste, horri erantzunez sortu zen proiektu hau.

Lau gune sortu ditu Udalak Usurbilen, eta beste zenbait egiteko asmoa du, terreno publikoan auzo-konposta egiteko. Etxe-bloketan bizi diren familiek egiten dute konposta modu horretan –konpostaguneak erabiltzaileen etxebizitzatik 100-200 metro ingurura daude

gehienez– eta gune bakoitzean Udalak prest jarri ditu beharrezko ontziak: bizilagunak duen betebeharra da, dagokion konpostagailua ireki, material organikoa ondo zabaldu, eta gainera estrukturantea edo material lehorra (orbelak, adaxkak, lastoa eta abar) nahastea. Hondakinetan dagoen material organikoaren %80 ura da, ustelkorra beraz, eta gai lehorrak nahastuz lortzen da guztia ongarri bihurtzeko bidean jartzea. Ondo eginez gero, usainik ez da zabaltzen ingurura.

Gorka Goiatxeren etxean duela hilabete inguru ekin zioten konpostajea egiteari eta gustura daudela dio: “Nire iritziz dependentziarekin amaitzen dugu konpostajea eginda, eta gainera behin prozesu osoa amaituta herriko lurretan zabalduko dugu ongarria, edo behar duen baserritarrari emango diogu. Hau da, prozesuaren amaiera ere herriarentzat onuragarria izango da”.

Usurbilen hondakinen bilketa atez ate egiten dutenez, familia guz-

tiek etxean bertan bereizten dute materia guztia, eta organikoa konpostaje plantetara eramaten da. Baina hasieratik Udalak kanpaina bat jarri zuen martxan hondakin organikoa ahalik eta familia gehienek beren etxean kudeatzearen alde, besteak beste, kostuetan ere nabaritzen delako. Herritarrak ere nabaritzen du poltsikoan. Etxean autokonposta eta kalean auzokonposta egiten dutenek urtean 80,28 euro ordaindu beharrean 48,17 euro ordaintzen dute.

Usurbilgo auzokonposta sistema ez da asmakizuna ordea. Eredu hurbilena Iruñean aurkitu dute, bertoko sei kontzejutan (Egues, Oteitza, Labio, Badoztain, Subitza eta Olatz Nagusia) 2009an hasi ziren antzeko esperientzia batekin, eta ondoren Nafarroako Basaburuako zenbait herritan ere hasi dira. Europan eta munduan hiri askotan sustatzen dituzte udalek horrelakoak.

Usurbilen 2011ko azaroaren 19an jarri zuten martxan lehenengo gunea. Artzabalgo parkean dagoen Erreka Txiki gunean hasiera batean sei familia inguruk egiten zuten arren gaur egun 16k egiten dute gune horretan. Gerora beste bi gune abiarazi dituzte, denetara 65 familia bilduz. Auzolanean auto-konposta egiteko itxarote zerrendan daude familia asko –160 daude izena emanda– eta laster horietako 16 familiari aukera emango zaie

**“Dependentziarekin
amaitzen dugu
konpostajea eginda, eta
gainera prozesuaren
amaiera ere herriarentzat
onuragarria da”**

GORKA GOIATXE, KONPOSGILEA



Erabiltzaileak etxebizitza-blokeen ondoan du konposta-gunea (1). Konpostagailu komunitarioa giltzarrapo batekin dago itxita (2). Lehenik hondakin organikoa bota behar da (3), ondoren lehorkina bota behar zaio (4) eta segidan zertxobait nahastu hartzidura prozesua ondo irten dadin (5). Hilabete gutxiren buruan konposta erabiltzeko prest egongo da.

proiektuan parte hartzeko, gune berri bat egingo baita epe motzera; Udalak gehiago egiteko asmoa ere badu.

Hasieran Gipuzkoan esperientzia pilotu bezala abiatu zen Usurbilgo proiektuak ikusmin handia sortu du hainbat herritarrek horretarako prestutasuna agertu izanagatik, eta emaitzak ikusirik. “Herri askotako hautetsi eta teknikariak honen berri izateko interesa azaldu dute, eta dakigunez, euren herrietan halako esperientziak abian jartzeko dirulaguntza eskariak eginak dituzte Gipuzkoako Aldundiak hondakinen prebentzioa sustatzeko egin zuen deialdira. Beraz, ziur aurrean bertan, Gipuzkoako beste zenbait herritan jarriko direla auzokonposteko esperientzia berriak abian”, dio honetan lanean diharduen Joxe Mari Irazustak.

Konpostajearen Egunk

Organikoa ontzian lagatzen denetik konposta jasotzeko sei hilabete inguru pasa behar dira. Lehenengoa azaroan hasi zirenez oraindik ez dute konposta jaso. Etxeetatik ekarritako hondakin organikoek eta bertan nahastutako orbel, lasto eta abarrek lehenbizi hartzitu egin behar dute, “irakin” nolabait esateko. Horretarako sarritan nahastu egin behar da ontzi barrukoa. Geroago, hozten joango da eta zizareek bihurtuko dute benetako ongarri. Azaroan hasi zen taldearen prozesua azken fasean dago, aurki konpost hori ateratzeko aukera izango du.

“Ateratzen dugun horrekin gure asmoa da urtean bi edo hiru egunez konpostaren festa egunak antolatzea, eta komunitateko jendearen laguntzarekin konposta lortzea”, dio Usurbilgo Udaleko Ingurumen teknikaria den Ibon Goikoetxeak. Material hori ongarri bihurtuta parte hartu nahi dutenen artean banatzeko asmoa du Udalak, eta, bestela, Udaleko lorezaintza zerbitzuek erabiliko dute herriko lorategietan. Soberan izango balute herriko garbigunean utziko lukete herritarrek dohainik eskura dezaten.

Usainik edo sagurik?

Konposta auzolanean kale ondoan egin behar denez, usainak eta saguek kezka sortu zioten Udalari, baina ez dute horrelako arazorik izan; ez da sagurik azaldu eta usaina esperientziarekin kontrolatu egin dute. Udalak ez du kezkarik izan, eta beraz gustura daude proiektuaren alde egin zuten guztiak. Kaxa irekitzen denean lurruna ateratzen da, baina une horretan da soilik, eta kontrolatuta dago.

Usurbilgo auzokonposta sistema ez da asmakizuna. Iruñerrian aurkitu dute eredu hurbilena, bertoko sei kontzejutan 2009an hasi ziren antzeko esperientzia batekin

Guneen funtzionamendua egokia dela ziurtatzeko talde bakoitzak arduradun bat du (*master-composter*). Arduradun horren lana da hondakin organikoari gehitu beharreko estrukturatea badagoen kontrolatzea eta falta bada Udalari abisua pasatzea, eta, bestetik, organikoaren guneak noiz betetzen diren eta egoera egokian dauden kontrolatzea. Beraz, edozein zalantza izango balute arduradun honek Udaleko arduradunarengana joko luke.

Udal-baratzeak

Gaur egun Usurbilen 2.300 familia inguru bizi dira eta horietako 535ek konpostatzen dute, bakoitzak bere etxean eta Udalak jarritako guneetan. “Ikusten genuen konpostajea etxean eginen ari zirela herritar asko, eta bazegoela konpostatu nahi baina ezin zuten herritarren aldetik eskaera bat”, dio Goikoetxeak. Ingurumen teknikariak dio egokiena bakoitzak bere etxean konposta egitea dela, eta auzolaneako ez duela zentzurik etxean egiteko aukera duen jendearentzako.

Aurrera begira udal-baratzeak sortu nahi dituzte herrian eta horietan ere guneak jartzeko asmoa dute. Autokonpostajea zuk zure hondakinekin ongarria sortzea da, eta hori da egoera idealena, “norberak bere etxean hondakinak kudeatzea” dio ingurumen teknikariak. ■



Arturo Campion

Euskaltegi denentzat baldintza berak aldarri

Eguneroko egoerak irudikatuz euskara irakastea, horixe Arturo Campion Iruñeko euskaltegiaren lana. Aurten 40 urte bete ditu zeregin horretan eta ospatzeko data duten arren, euskaltegiak ez du garairik onena bizi, besteak beste, diru-laguntza faltagatik. Egoera larria da.

Testua eta argazkiak:
IURE EIZAGIRRE

IKAREN ARTURO CAMPION euskaltegia 1972an sortu zen, euskararen inguruan mugimendu handi samarra zegoen hamarkadan –euskara batuaren oinarriak ezarri berriak, ikastolak eratzen hasiak, Euskaltzaindiak alfabetatze taldeak sortuak...–. Iruñean ere bazen mugimendurik eta hortik sortu zen euskaltegia. Nafarroako Unibertsitatean ikasten zuen gazte talde baten nahia eta, besteak beste, lehen ikastolen sorreran ibili zen Etorkizuna elkartearena batu eta lehen euskara eskolak sortu ziren. Etorkizuna elkarteak Nafarroako Gobernuak ondare kulturalaren babeserako Principe de Viana erakundearen eta Euskaltzaindiaren babesaren zuzenbidea, beraz, euskaltegia ere babes apur batekin eratu zen.

Ordutik 40 urte igaro dira eta lehen euskaltegi hark beste batzuen sorrera ekarri du, IKaren kasuan Nafarroan eta Araban. Foru Erkidegoan Iruñerrian, Bortzirietan, Malerrekan eta Leitzaaldean ditu euskaltegiak. Guztira 700 bat ikasle dabilta euskara ikasten, horietako 200 bat Arturo Campionen. Araban, berriz, Gasteizen eta Arabar Errioxan eskaintzen du zerbitzua eta hiriburuan bakarrik 2.000 ikasle ditu. Hainbat udaletan, enpresatan, sindikatutan eta bigarren hezikuntzako ikastetxetan dituzten ikasleak gehitu behar zaizkie horiei.



IKAko euskaltegietan, Nafarroan, 700 ikasle inguru dabilta; Iruñeko Arturo Campionen 200 bat dira.

Egoera ez da berdina bi erkidegoetan, ez ikasle kopuruari ezta diru-laguntzei dagokionez ere. Sagrario Aleman Arturo Campion euskaltegiko zuzendaria da 1982az geroztik eta bere ustez, nahiz eta aurten murriztu diren, Araban diru-laguntzak handiagoak dira. Gainera, helduen euskalduntzea arautuago dago. Haren iritziz, erraztasun eta laguntza handiagoa dute Eusko Jaurlaritzaren, Aldundiaren eta udalen aldetik. “Iruñean, esaterako,

Udalak ez du bekarik ematen euskalduntzeko”, azaldu du Alemanek, eta Nafarroako Gobernuaren laguntza “hutsaren hurrengoa da” gaineratu du. Laguntza faltaz ez ezik, euskarari ematen zaion balioaz kezka da Aleman, izan ere, “instituzioetatik ez da euskara baloratu eta ez dute jendea euskara ikastera bultzatu urteetan, askotan jarrera kontrarioa izan da. Gainera, legea bera ere oztopo da, euskara gune bakarrean baita ofiziala edo koofiziala.

Horrek ez du jendea euskara ikastera erakartzen”.

Eta euskara ikastea erabakitzen dutenentzat IKArena ez da aukera bakarra. Nafarroako Gobernuak ere sortu zuen euskaltegia bere garaian eta denborarekin IKArekin lehiakide bihurtu da. Alemanek honela azaldu du egoera: “Hasieran ikastaro trinkoak ematen zituen Gobernuaren euskaltegiak eta guk erritmo apalagokoak, beraz, ez ginen lehiakideak. Osagarriak ginen, eta beharrezkoak biak”. Gero, ordea, Gobernuaren euskaltegia erritmo apalagoko ikastaroak ematen hasi zen eta egun lehiakide bihurtu dira. Eskaintza berbera egin arren, prezioetan alde handia dagoela adierazi du Alemanek, Arturo Campionen ikasten dutenek, adibidez, lauzpabost aldiz gehiago ordaindu behar baitute baliabide ezberdintasuna dela eta. Horregatik, eskaria argia da: “Euskaldunak sortzea izan behar da guztion helburua, baina ahal bada guztiok erraztasun berak izanda, ez dugu ongi ikusten batzuek erraztasunik ez izatea ez zaielako nahikoa laguntza ematen euskara ikasteko”.

Egungo egoeran, zer?

Alemanek argi utzi du, Nafarroan euskalgintzan lanean dabilen edozein talderena bezala, IKArekin egoera larria dela. Dirua ez ezik, ikasleak behar dituzte eta hauek lortzeko kanpaina egin beharko dutela, euskara gizartearen gehiago txertatu beharko dutela, uste du.

Helburu hori lortzeko euskalgintzako beste hainbat talderekin lan egin beharraz ohartarazi du: “Ikasle berriak lortzea oso garrantzitsua da, are gehiago egoera honetan, hizkuntza-politika egitearen izenean euskararen aurkako politika egiten ari direnean. Horren aurrean euskalgintzako guztiok beste politika

40 urte, egun batean ospatzeko

Urtero egiten dituzte eskolaz kanpoko ekitaldiak Arturo Campion euskaltegian, baina aurten maiatzaren 12an izango dute ospakizun nagusia. Bertsolariekin ekingo diote egunari 11:00etan, eta fanfarrearekin Iruñeko Alde Zaharra zeharkatuko dute. Gaztelu plazara helduta, euskaltegiko ikasle batek jotak abestuko ditu euskaraz. Ondoren, hitz jostaketa izango da Aitor Txarterinarekin, Kike Amorrizekin eta Asisko Urmenetarekin. Giro ezin hobean Salestarretan (kiroldegian) bazkalduko dute eta amaitutakoan kantuan ariko dira. Arratsaldean Jarauta 69 fanfarreak girotuko du jaia, eta egunaren amaieran kontzertuak izango dira Balerdi Balerdi eta beste bi talderekin.

bat, euskararen aldekoa, egin beharko genuke. Guri dagokiguna ikasle gehiago erdiestea da, euskara ikasteko eta erabiltzeko”.

“Ikasle berriak lortzea oso garrantzitsua da, areago hizkuntza-politika egitearen izenean euskararen aurkako politika egiten ari direnean”

SAGRARIO ALEMAN

Bizirautea da beste erronka eta horretarako laguntza ekonomikoa beharko dutela jakinarazi du. Iruñeko euskaltegiaren kasuan Arturo

Campion Fundazioa laguntzea izan daiteke bideetako bat. Jendearen dohaintzak jasotzen ditu Fundazioak eta euskaltegiak beharra duenean horrengana jotzen du.

Motibazio afektibo-identitarioa edo instrumentala

IKA euskaltegiaren ikasleek galde-tzean ere agertu da erkidegoen arteko bereizketa, batez ere Gasteizko eta gainerako euskaltegien artekoa. Alemanen iritziz, Nafarroan motibazio afektibo-identitarioa gailentzen da euskara ikasteko garaian, eta Araban, EAEn oro har, motibazio instrumentalak Nafarroan baino pisu handiagoa du. Euskarari emandako balioa dago horren atzean: “EAEn euskara zenbait lanpostutarako baloratu izan da eta Nafarroan, berriz, oso gutxi. Ondorioz, motibazio instrumentala oso marjinala da”.

Arturo Campioneko ikasleria heldu samarra da, baina Alemanek uste du D ereduan euskalduntzen ari den gazte askok ere baduela euskaltegiara hurbildu beharra. “Gazte horiek ez dute ingurune euskaldunik eta askotan euskara eskolako hizkuntza bezala ikusten dute. Ikuspegia aldatu egiten zaie hemen jendeak egiten duen ahalegina ikusita”.

Horregatik ez du izutzen etorkizunean gazteak eskolatik euskaldunduta irteategatik edo ikasketak euskaraz eginda titulua jasotzeagatik euskaltegitara ez joateak. Baina penagarria irizten dio ikasketengatik titulua emateari, gazte horiek gehienetan hartzen duten hizkuntza-maila ez baita euskaraz bizitzeko adinakoa. Bestalde, argi du etorkizuna: “Euskaltegiaren bokazioa desagertzea da, baina momentu honetan hori ametsa da. Gure helburua gizartearen euskalduntzea bada, urteetarako lana dugu”.



Babeslea: Hernaniko Udala



...eta busti egin nahi dugu

Txillardegiri buruz jardunaldiak' Donostian

KONTSEILUAK eta Batzenek (Donostiako Euskalgintza biltzen du) Txillardegiri omenaldia egin nahian jardunaldiak antolatu dituzte maiatzaren 12an. Ia hitzaldi guztietan Txillardegiren ekarpenak aztertuko dituzte. Iñaki Lasak esate baterako, donostiarrak euskararen normalizazio prozesuari egindako ekarpen nagusiaz hitz egingo du, eta Imanol Esnaolak Txillardegik glotodidaktikan egindako lana errepasatuko du. Xabier Isasi, Urko Aiar-

tza, Unai Larreategi eta Dani Goñi izango dira gainerako hizlariak.

'Hazi Hezi' aldizkaria sortu da

HIK HASIK jarri du abian aldizkaria Irrien Lagunakekin eta guraso.com webgunearekin elkarlanean. Hezikuntzara bideratutako *Hik Hasi* hilabetekariak 17 urteko ibilbidea egin du eta bide horretan etxekoentzako (guraso, aiton-amona, zain-tzaile) aldizkaria egiteko tenorea ikusi du. *Hazi Hezi* hiruhilabetekaria izango da.

Unesco, Internet eta hizkuntza aniztasunaz

EHUKO Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedrak jardunaldiak antolatu ditu maiatzaren 17rako Bilbon. Bertakoez gain kanpoko esperientziak entzuteko aukera izango da, hala nola, Gales, Aragoi, Asturias, Zeelanda Berria, Mexiko eta Frisiako adibideak.

BAHEA

Juan Kruz Lakastak eta Zaldieroak Berriko *Serio demonio* atalean esanak:

“EGA titulua lau jogurt estalkiren truke oparituko dute: Eroskiren marka zuriko lau jogurt estalkiren truke EGA titulua oparituko du Eusko Jaurlaritzak, Blanca Urgell Kultura sailburuak iragarri duenez. Homologazio modu berri hau 2012-2013 ikasturtean jarriko dute indarrean. Urgellen arabera, ‘jogurt horiek erosten dituztenek euskalduntzeko ahalegin handia egiten dute; izan ere, etiketetan informazioa gazteleraz ez ezik euskaraz ere badakarte. Eta ahalegin horrek titularen aitortza merezi du, azterketarik egin behar izan gabe”.

Agustí Vilellak *El Punt Avui* egunkarian esanak: “Estatu Espainiarrak hasi du telebista autonomikoen kontrako azken eraso; barkatu, TV3ren aurkakoa. Hori baita erasoaldiaren helburua, zeren haientzat TV3 telebista autonomikoa Katalunian gehien ikus-entzuten den telebista da eta katalanez emititzen duena –bekatu nagusia da azken hori—. Beraz, enbarazu egiten duena da. Orain denek PPren eskua sumatu dute, baina erasoaldia PSOeren Gobernuarekin hasi zuen Estatuak, TVEn publizitatea kentzea dekretuz agindu zuenean: Estatuak telebista estatala nahi adina denbora mantentzeko eta mantenduko du, nola edo hala. Aldiz, autonomikoei (alegia TV3ri) defizitik ez izate eskatzen die, publizitate merkatua gero eta iharragoa den garaioan”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Argentina eta Boliviatik Euskal Herrira

Argentinako eta Boliviako gobernuak YPF-Repsol eta Red Eléctrica Española desjabetu eta nazionalizatu izanak erreakzio politikoa eta enpresariala sortu du herrialde horietatik kanpo. Bikoitza izan da erreakzio hori; alde batetik, ezkerretik neurri hori babesten dutenak daude, herri aske ororen subiranotasun ekonomiko, politiko eta energetikoarekin koherentziaz egin delako. Bestetik, eskuinetik neurri horren kontra egin dutenak daude, euren metropoliko espiritu kolonialista, kapitalista, multinazional eta harrapariarekin koherentzian.

Egia da Cristina Fernández Kirchner presidenteak, nola bere aurrekoak, Nestor Kirchner senarrak, YPF pribatizatzea erabaki zutela 1992an. Egia da ideologia peronistaz gain ideia populistak ere izan dituztela, eta sozialismoaren oinarrietatik urrun egon izan direla, esaterako sektore estrategikoen nazionalizazioari dagokionez. Egia izan daiteke, Argentinak eta Boliviak hartutako erabakiek, nazioarteko merkataritza harremanak arautzen dituzten zenbait “forma” ez betetzea legearen ikuspuntutik. Baina inork ezin du zalantzan jarri Argentinaren eta Boliviaren gaitasuna euren natur baliabideak (petrolio, gasa...) kontrolatzeko eta kudeatzeko. Eta inork ezin du zalantzan jarri Argentinaren eta Boliviaren gaitasuna euren lege eta arauak aldatzeko, subiranoak baitira. Areago herrialde horien barruan nazionalizazioak babes politiko zabala izan duenean.

Argentinakoa eta Boliviakoa, kapitalismoaren aurrean alternatiba ekonomikoak dauden adibide dira. Euskal Herriak bide hori segi dezake, bere subiranotasun ekonomiko eta politikoa usatu nahi izanez gero. Ezkerreko indar subiranistek asteburu honetan egindako proposamen sozioekonomikoa norabide horretan doa. Gure etorkizunaren jabe izateak esan nahi du gure natur baliabideen eta ahalmen ekonomiko nahiz finantzarioen jabe garela, gure lan harremanen eta babes sozialerako sistemaren antolatzaile garela.

Juan Mari Arregi



Esperantza

FRANÇOIS HOLLANDEK hauteskunde kanpainen agindutakoak beteko baditu, une arras interesgarria bizi daiteke Europar Batasunean. Alemania eta Frantziaren arteko lidergo borroka ere gerta daiteke, bai behintzat egia balitz Hollande hazkundera dela eta Merkel austeritatea. Bizi den krisi latz honetan ez da zentzuzkoena aurreikuspen tinkorik egitea, baina orain arte Grezian, Portugalen, Espainian eta Europako beste herrialde batzuetan sozialdemokrasiak nola jokatu duen ikusita, ez dago baikortasunerako tarte handirik.

Baina, bestetik, esperantza izpi bat duten Europako herritar guztiek entzun dituzte hark kanpainen iragarritakoak. EBrekiko bi lerro nagusi finkatu ditu Hollandek. Batetik, Europako Itun Fiskala dago, EBko estatuen aldetik onarpen bidean doana eta, teoriarik, bost urte barru indarrean sartuko litzatekeena, baina praktikan jarduera ekonomiko gisa EB osoan gauzatzen ari dena, estatuak itoz eta atzeraldiak eraginez.

Bestetik, finantza eredua dago, Hollande oso kritikoa agertu da finantza merkatuekin eta erreformak bultzatuko dituela iragarri du. Besteak beste, ekonomien hazkundera bultzatzeko neurri gisa, Europako Banku Zentralak (EBZ) dirua estatuei zuzenean mailegatzea nahi du, interes txiki batekin eta ez, gaur egun bezala, bankuen bidez. Gaitza da halakorik azkar gauzatzea, baina agian posibleago da EBZk estatuak eurobonuekin serioago laguntzea, eta hori askoz samurragoa litzateke. Edo hainbat finantza inbertsio zergapetzea, aspalditik eskatzen ari den moduan.

Hiru langa handi hauen gainetik egin beharko du jauzi Frantziako lehendakari berriak. Bata, Merkel

bera da, baina hau ere ez dago etxafuegoetarako: Hollande ez da Sarkozy izango; EBn gero eta isolatuago dago; eta, batez ere, bere koalizioa gobernua indarra galtzen ari dela adierazi dute Alemaniako hainbat inkesta eta hauteskunderak. Bigarren langa merkatuena da, eta hauek laster mintzatuko dira. Eta hirugarrena, barne mailakoa da, Frantziaren bertan ezarri nahi duen aire berria indarrean jartzeko ekintzak Legebiltzarrerako ekaineko hauteskundeak irabazi behar ditu eta.

Gaitza da irudikatzea Hollande horri guztiari aurre egiten, besteak beste merkatuei aurre egitea esan nahi duelako, eta hori gaur gaurkoz hil ala biziko borroka delako. Errazagoa da pentsatzea, Alemaniak amore emanda, hazkundera begira hainbat neurri hartuko direla, hori bai, funtsean Europaren Egonkortasunerako Ituna zalantzan jarri barik. Baina batek daki, Greziako hauteskundeetako emaitzek erakusten duten moduan, Europar txinpartak dantzaren dira eta ezin da esan zein zelai erreko den edo zein ez. Gaitza da, baina bere jarrerak esperantza izpi bat piztu du Europa osoan, hori ere egia da.

ESPAINIAKO egunkari irakurrien artean agertzen zen duela egun batzuk zapata hegalarien istorioa. Lehen zapata horietakoa kazetari batek jaurti zion George W. Bushi Bagdaden, 2008an. Bigarren

zapata herritar kurdu batek bota zion Turkiako agintari Recep Tayyip Erdoganari Sevillan, 2010ean. Bagdadekoak bederatzi hilabete egin zituen espetxean eta libre ateratzen, kurduak hiru urteko zigorra jaso eta oraindik Espainiako espetxe batean da. Albisteak idatzi duen kazetariarentzat eskandalua da Hokman Joman kurduari gertatu zaiona. Eta ez zaio arrazoirik falta. Ondoren datorrena "Dena da ETA"-ren enegarren kapitulua da.

Zapata hegalariena baino istorio larriagoak dira hauek, euskal kazetari eta herritarrei maiz gertatutakoak. Javier Salutregi, Teresa Toda, Jesus Mari Zalakain, Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Sonia Jacinto... eta beste dozenaka herritar beren jardura profesional edo politikoa agatik zigortu zituen Espainiako Auzitegi Nazionalak, ETAkoak izan edota haren aginduen betetzea leporatuta.

Berdintsu gertatzen zaie D3M eta Askatasuna auzietan epaituak izaten ari diren 13 euskal herritarrei, eta zazpi eta bederatzi urte arteko espetxe zigorra eskatzen zaie ezker abertzalearen siglak hauteskundeetara eraman nahi izanagatik. ETAren aginduz hauek ere. Bai lehen, bai orain PP eta UPNko politikariei lasai entzuten zaie esaten merezi dutela eta kito. PSEkoak, orain, tentu handiagoz ibiltzen dira eta esaten dute ETA aritzen zen bitartean ezin zela baimendu berau kondenatuko ez zutenak hauteskundeetan normaltasunez aritzea. Zigor eskaerei buruz, justiziak erabaki behar duela, noski, baina garai berriak ere kontuan hartu behar direla.

Orain zera gertatzen da: Estatuaren biolentzia dela baldarra, eta agerian geratzen den bakarra.



Zapata hegalariena baino istorio larriagoak dira hauek, euskal kazetari eta herritarrei maiz gertatutakoak

Arrantzalea: harrapari zena gaur itsasoaren zaintzaile

Britainia Handian bapore txikietan ari diren arrantzaleei laguntzaile bikaina atera zaie: naturari buruzko telesaioek famatu egin duten Monty Halls. Urtebete eman ondoren haien ofizioa ikasten, kontserbazionista ezagunak hobeto ulertu du baxurako itsasgizonen gaurko bizimodua eta biharko arrainaren zaintzaile onenak direla dio.

ITSASOKO ARRAINEN DESAGERTZEA seriotan hartzen dute Britainia Handian. Arrantzu burutsuago baten aldeko kanpainak han ez dira espainolezko *Pezqueñines, no gracias* bezalako arinkerietan geratzen, ezta gure arraindunei entzuten zaien “bertako bisigua aspaldi bukatu zela” bezalako kexuetan ere. Erresuma Batuko komunikabideetan arrantza iraunkorraz eztabaidatzen da, bortizki ere bai sarritan.

2010etik, esaterako, *Fish Fight* (Arrain borroka, estu itzulita) kanpaina berotzen du Hugh Fearnley-Whittingstall sukaldariak, salatzeko Ipar Itsasoan harrapatzen diren arrainen erdiak berriro uretara doazela akabatuta. Arrastean ari diren ontziek portura klase jakin batzuetakoak eramango dituzte eta gainerrako guztiak, aski balio komertzial ez dutenak, putzura botatzen berriz. Itsasoari kentzen zaion erdia itzultzen zaio alferrik galduta, hilda.

Arrain handiak gero eta urriago heltzen dira Europako kaietara, espezie batzuetatik alerik ere ez aspaldi, eta horren errua gehienetan arrantzari egozten zaio, ez motiborik gabe. “Baina zalapartaren erdian—idatzi du Ruth Stylesek *The Ecologist* aldizkari bateranoan— Britainia Handiko itsasoko bizitzaz dauden eztabaida beroen artean, istorio honen atal bat falta zen: gizakiei

dagokiena”. Horixe da Monty Halls ezagutu eta azaltzen saiatu dena *The Fisherman’s Apprentice* izenez plazaratu dituen dokumentalean eta liburuan.

Britaniarren ezaguna da gaur 48 urte dituen Halls. Ingalaterrako *marine*etan militar aritua, biologiako ikasketak egin zituen eta azken urteotan telebistarako saio famatuak ekoiztu ditu, bai itsasoko izakiez (*Escape* seriea), bai itsasoko izakiez. Espedizioen gidari ere ibili da eta zenbait elkarte filantropiko sortu edo babesten du, militar erretiratuaren aldeko bat ere bai tartean.

BBC kateak joan den otsailean 6 ataletan eskaini du Hallsen azken lana den *The Fisherman’s Apprentice*, euskaraz “Arrantzalearen aprendiz” edo besterik gabe “Baporean txo” esango genukeena. Urte betean txalupa txiki batean ikusi eta ikasi duena kontatzen du.

*The Ecologist*eko kazetariari aitortu dio beldurra ziela hasieran gizon gordin haiei. Orain aldiz, dio bizi deno defendituko dituela itsasgizonak. “Eskuzabalik hartu ninduten, berotasunez eta ikusminez ere bai, noski. Zaindu egin naute eta arrantzale horiek zaindu ez banindute han barruan genbiltzanean, seguru enik gaur Kanalean [itsasoan] egongo nintzen, ez bainekien zertan ari nintzen”.

Bere blogetik hartutako argazkian ageri da Monty Halls biologoa (erdian, burua estalita) eskifaiko bi lankideren artean, lehorretik hurbil arrantzuan. Kornuallesko Padstow herriko bapore batean aritu da urtebetez lanean, han ikasitakoa *The Fisherman’s Apprentice* izeneko dokumentalean eta liburuan azaltzeko. Britainia Handiko komunikabideetan asko eztabaidatzen da uhartea inguratzen duten itsasoan hilzoriaz eta horietan baporeek egiten duten arrantza hobeto arautzeaz. Kanpaina handiak daude era iraunkorrean harrapatutako arrainak (hurbil eta garaian garaikoa) kontsumitzea sustatzeko. Kontserbazionisten eremuan hezia, Hallsen ikasi du itsasoa zaintzekotan arrantzaleei lana hobeto egiteko eskatzea adina dela beharrezkoa haiei laguntzea, arrainek, lanbideak eta herriak iraun dezaten.

Eskifaian bizimodu gogorra probatu du, goizik jaikitzea, bizkarrezurra apurtu arteko lana, egun luzeak eta soldata motzak. Ezin harritu gazteek ofizioa maite ez badute. “Gizonok 49 urte dituzte batz bestea. Inork ez du nahi Dickensen garaiko lanbide hau. Datozenak heldu dira aita ere itsasoan aritua zutelako”.

Arrain iraunkor hurbilekoa

Lan gogorra, irabazi urriak eta azken urteetan arautegi zorrotzak, etorkizunean bapore txikiak are gutxiago izango dira. Justu arrantzurik iraunkorrena egiten dutenak. Hala uste du Hallsen: “Berdin segituz gero, ehun urte barru hilda egongo da flota hau, ondorengo 30-40 urteetan desagertuko dira txalupa txikiak. Eta orduan Gobernuak osatuko du batzorde bat jende oso argiek arrantza iraunkorrerako formularik berriena pentsatu dezaten. Eta proposatuko dituzte eskifai bakarrek txalupa txikiak, sare eta otar egonkorak usatuko dituztenak, egunero arrantza egingo dutenak hurbileko herrietan baporetik zuzenean saltzeko. Orduan atzera begiratu dute eta konturatu dira: ‘Ostia!’. Gaur egun horixe ari gara eta egiten...”

Itsasoaren egoera tamalgarriaz gero eta gehiago dakigun arren,



dugu, eta modu iraunkorrako batean erosten hasi”.

Kornuallesko kosten miseratan debilen baporean aritu da Halls. Nasa eta otarretan harrapatzen dira krustazeoak, misera edo abakando, otarrain eta txangurru. Biltzen dutena arrantzaleei duela 20 urteko prezioan pagatzen zaienez, hauek gero eta otar gehiagorekin lan egitera behartuta daude, itsasoan milaka paratzen dituzten ontzien eta atzerrik bi sosenetan inportatzen den jeneroaren erdian lehiakor izateko.

Itsasoa bizirik atxikitzeko politikak legeekin batera prezioen egokitzeta ere ekarri beharko du. Alegia, lehorrekoak arraina garestiago erostera konformatu daitezela, baldin eta ontzi txikiak harrapatua bada. “Ohartzen naiz honi askok klase ertaineko baten iritzia dela esango duela. Bakarrik eta lanik gabe hiru haur aurrera atera behar dituen emakume batek esango dizu bere arazoa dela ahalik eta arrainik merkeena bilatzea. Ulertzen dut. Baina aukeratzeko ahalmena dugunok era jasangarrian harrapatutako arrainari saria eman beharra daukagu”.

Euskal Herrian ere agian zabalduko da arrantzari buruzko eztabaida, itsasoaren osasuna eta arrantzaileen bizimodua uztartuko dituen. Lerrook idazteko unean jakinarazi du *Berriak* Bizkaia eta Gipuzkoan hegaluzea eta hegalaburra denek txalotutako teknika iraunkorrez harrapatzen dituzten arrantzaleek beren eskubideak saldu dizkiotela Mediterraneoko hegaluze faktoria kutsakor eta suntsitzailenari. ■



lehorrean arrain asko eta merke eskuratu nahi dugu. Eta lehorrean, oilasko merkearen eskaria asetzeko granja erraldoiak eraiki diren moduan, itsasoan ugaritu dira bapore handiak eta harrapari teknika bortitzak, arraste, haztegi, eta abar.

Hallsek salatzen du Britainia Handiko ontzidiaren %80 bapore txikiz osatuta egon arren, hauek doi-doi harrapatzen dutela mahaietara iristen den arrainkiaren %8. Itsasbazterretik hurbil aritzen diren txalupok dira arraina gehien zaintzen dutena, baina atzerriko produktuekin egiten zaien gerrak eta ontzi handien konkurrentziak hondora daramatza. “Ontzidia galtzen badugu, eta horretan ari gara gaur, berarekin galduko ditugu haien


inguruan bizi diren kostaldeko herriak, eta galduko ditugu kultura eta ondarea, gure uhartearen nortasunaren osagai funtsezkoa dena”. Hala omen da euskaldunona ere, edo agian *hala zen* esan beharko.

Amildegian amai daitekeen deriba eteteko, sokaren bi muturretan egin behar dira aldaketak, Monty Hallsen aburuz. “Lehorrekook gure ohiturak aldatu behar ditugu, erosteko moldeak aldatu. Arazoaren alde honi ezikusia egiten diogu. Nabarmenago ikusten dugu arrantzaleek aldatu beharrekoa: aparailuak usatzeko modua kanbiatu behar dute, itsasoa kontserbatzeko 2013rako antolatu nahi dugun eskualdekatzea errespetatu behar dute. Baina geuk ere aldatu behar



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Bibliografia

Ematen du Frantzian, Euskal Herria barne, aldaketa baten atarian gaudela. Ez dugu pasatu diren bost urteen bilduma politikorik eskainiko, baizik eta Sarkozyren erreinua-
ren bibliografia labur bat. Mass-medietan omerta zoratuak zirauen arren idazle batzuek egoera salatu zuten garrazki. Sarkozy lehendakari-
tu eta berehala hasi zen *story-teller* hipnotikoaren diskurtsoen desgitearen borroka.

• *De quoi Sarkozy est-il le nom.* Alain Badiou (Lignes, 2007).

Beldurak Estatua bermatuko zuela zioen filosofoak eta Sarkozy herritarren gerizatzaille agertzen zela. Lana, patria, familia hirukotea harrotzen zebilan Vichyren garairik hoberenetan bezala. Halatan Sarkozyren izena altxatzen zen deprimitzen gintuzten gai guztien kontrako baradera gisa.

• *La nuit du Fouquet's.* Ariane Chemin eta Judith Perrignon. (Fayard, 2007).

Baina 2007ko maiatzaren 6ko gauean bi kazetarik ederki erakutsi zuten lehendakari berriak nolako ezpaletarik su egingen zuen. Fouquet's ostatuan Estatuko aberatsenekin bildu zen. Gonbidatuen zerrenda ikustea aski zen jakiteko CAC 40ko zein nagusik eskuratuko zituen ondoko gobernaldiko merkatuak eta oho-reak: Bouygues, Arnault, Dassault, Proglio, Minc, LGVaren proiektuaren eramailea zatekeen Alstomeko Pron.

• *Rêves de droite: défaire l'imaginaire sarkozyste.* Mona Chollet (Zones, 2008).

Mona Chollet ikerlariak Sarkozysmoaren ideiak hartu eta abiadura handian deseraiki zituen. Hiperpresidentaren eleen atzean zegoen nahikunde neoliberalazaleratu zuen liburu zoharrean. Ordukoz nekezari bati *casse-toi pauvre* con ihardetsia zion eta jendarteko sail askotako hiritarrak laidoztatuak: emigranteak, gazteak, arrantzaleak, funtzionarioak, laborariak. Lehendakaria *People* aldizkariaren orrialdeetan hedatzen zen



DANI BLANCO

Carla Brunirekin Disneylanden elkar ezagutu ondoan. Politika espektakulu hutsa zen.

• *Le président des riches.* Monique et Michel Pinçon (Zones, 2010).

Enquête sur l'oligarchie dans la France de Nicolas Sarkozy zekarren obrak azpi-titulutzat. Aberatsak lehen zerbitzatuak zirela frogatzen zuen argiki, zerga-legeak, zenbakiak eta diskurtsoak lekuko. Plutokraziaren indartze dekonplexatuarekin batera ihardokitzaileak oro kriminalizatzeko joera zeukan bereziki 2010eko urrian sindikatuek erretreten erreformaren kontra masak karrikara bulkatzen zituztelarik. Hainbat greba-gune barreatu zituen poliziak Sarkozytarren klasearen milizia pribatua bailitzan.

• *Le quai de Ouistreham.* Florence Aubenas (Editions de l'olivier, 2010).


Kazetari ezaguna Caen-go garbitzaile enpresa batean sartu zen anonimoki, bederatzi hilabetez bertako prekarioen egunerokotasuna partekatzeko. Nepotismoaren zurrunbiloetarik urrun gainbeheratzen zihonan jendartearen —emakumeak gehienetan— egoera agertzen zuen Aubenasek. Ifernuratze iragarriaren kronika zen Sarkozyren *Travailler plus pour gagner plus* perpausaren mamia gezurreztatuz.

Mintzaldi bakoitzean Sarkozy labanak sarraskietan inarosten zuen sufrimenduak biderkatzeko eta jendeak bata bestearen aurka montatzeko. Bost urteko zirika morala. Jasangaitza. Bozka orduan pairamena aholkulari txarra zela baimendu zen FNeko neonazionalistek botuen %18a eskuratu zutelarik, gure herri txikienetan ere. Sarkozyren politika zekenak Frantzia kulturalki eta sozialki atzeratua utzi zuen, odolustua, diruz hamikatua, agerroiki xenofoboa eta homofoboa, herratsua. Hor gertatu bide zen aipatu ditugun liburuei esker ulertzea lortu genuen egiazko *rupture* goraiatua. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Bilboko Kafe Antzokia



Bazkaria
bi lagunentzat

Done Bikendi, 2
Bilbo BIZKAIA

www.kafeantzokia.com

1

Ekainberri

Ekain berri



3 harpidedunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

2

Inguru Abentura



Puenting (I. maila)
3 harpideentzako bina sarrera

San Juan kalea, 18
Albeniz ARABA

www.inguruabentura.com

3

Euskal Eskola Publikoaren 21. jaia



3 kamiseta
haurrentzako opari

www.ehige.org/jaia2012

4

Gartxot



2 liburu opari

www.argia.com

5

AZKEN IRABAZLEAK (2320. Argia)

IBERNALO LANDETxea

- Jone Illarregi Etxabe (Donostia)

EKAINBERRI

- Pello Bastarrika Elorza (Azpeitia)
- M. Jesus Barrenetxea Azkunaga (Galdakao)
- Gotzon Apaolaza Bernedo (Lasarte-Oria)

TOLOSA INDOOR KARTING

- Gotzon Bedialauneta Arrizabalaga (Iruñea)
- Maritxu Dorronsoro Arostegi (Lazkao)
- Jose Antonio Amundarain Arana (Oñati)

IGOR ARZUAGA eta LUIS VIL CDa

- Sabina Arruabarrena Sukia (Hondarribia)
- Araitx Jauregi Lejona (Legutio)
- Olaia Elortza Iñarra (Zegama)
- Estitxu Kortejarena Ugarte (Tolosa)
- Karlos Zarraga Ellakuria (Zaratamo)

OKATXU kamiseta

- Jabier Altzorritz Lardies (Bilbo)
- Xabier Iriarte Ansorena (Hernani)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia





ZERO ZABOR **bloga**
argia.com

Maiatzaren 9tik aurrera martxan!

*Hondakinik onena,
sortzen ez dena*

Hondakinen inguruan Euskal Herrian
eta munduan sortzen diren informazio,
dokumentu eta iritzien agertokia.

